

TXOSTENA TXOSTENA

32

EMAKUME HELDUEN

AHALDUNTZE-PROZESUAK

EUSKAL AUTONOMIA

ERKIDEGOAN



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**EMAKUME HELDUEN
AHALDUNTZE-PROZESUAK
EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN**

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2013

IZENBURUA:	“Emakume helduen ahalduntze-prozesuak Euskal Autonomia Erkidegoan”
EDITOREA ETA EGILEA:	EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz
LAN TALDEA:	Adimen Investigación: Marce Masa, Patxi Alija, Estibaliz Ibáñez, Aurelio Alonso eta Estibaliz Berroeta.
MAKETATZEAILEA ETA JARRAIPENA:	ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua
DISEINU GRAFIKOA:	Ana Badiola, Isabel Madinabeitia eta Ana Rincón
DATA:	2013ko maiatza
DESKRIBATZAILEAK:	Emakume helduak, ahalduntzea, genero ikerlanak, inkestak, datu estatistikoak, Euskadi
ALE ZENBAKIA:	500
INPRIMAKETA:	SACAL
ISBN :	84-89630-41-0 978-84-89630-41-3
L.G.:	VI 364/13

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
1. SARRERA	11
2. HELBURUAK	15
2.1. Helburu nagusia	17
2.2. Helburu espezifikoak	17
3. IKERKETAREN DISEINUA	19
3.1. Ikerketa-ildo bati jarraipena eta buru ematea	21
3.2. Ahalduzaren kontzeptuari heltzea, testuinguruan kokatuta.....	22
3.3. Estrategia metodologikoa: metodo kualitatiboa eta kuantitatiboa ondoz ondo konbinatzea	23
3.4. Ikerketaren faseak.....	24
3.4.1. Testuinguru bibliografikoa	24
3.4.2. Elkarrizketa sakonak.....	24
3.4.3. Eztabaida-taldeak	25
3.4.4. Telefono bidezko galdetegia, unibertsoa eta lagina	25
3.5. Landa-lanari buruzko oharrak.....	29
3.6. Txostenaren egitura	29
4. TESTUINGURUAREN ADIERAZLEAK	31
4.1. Segmentatzea, hiru adin-taldetan.....	33
4.2. Bukatutako ikasketen maila.....	35
4.3. Ekabizitza motak	36
4.4. Lan-merkatuko esperientzia	37
4.5. Lana gaur egun.....	38
5. NORBANAKOAREN AUTONOMIA: LEHENTASUN NAGUSIA, ETA BALIO ERROTUA	43
5.1. Emakumeen lehentasunak.....	45
5.2. Emakumeen autonomia areagotzea: belaunaldien arteko konparazioa.....	47
5.3. Eremu guztietan egoteko aukera handitzea	48
5.4. Generoak berdintzeko bidean, erabakiak hartzeko autonomia mailari dagokionez	49
5.5. Emakumeenganako bereizkeria mantentzen da, baina gainbehera doa	50
5.6. Autonomiaren esperientzia pertsonalak	54
5.7. Bereizkeria esperientzia pertsonalak	57

6. LANAREN PARADOXAK: AUTONOMIA ITURRI, DESBERDINTASUN ITURRI	61
6.1. Independentzia ekonomikoa: autonomia indibidual handiagoa lortzeko palanka	63
6.2. Ahalduzte ekonomikoko formalaren maila: belaunaldien arteko aldeak.....	65
6.3. Ahalduzte maila altua benetako kudeaketa ekonomikoa	67
6.4. "Enplegua duten (etxetik kanpo lan egiten duten) emakumeak autonomoagoak dira"	69
6.5. Beren burua "etxeandretzat" jotzen duten emakumeen iritziak.....	71
6.6. Ez baldintza berak, ez aukera berak, ez soldata berak	77
6.7. Emakumeen botere-banaketa asimetrikoaren iraupena, esparruen arabera.....	81
7. EMAKUMEEN MUGIMENDUAK: INTERESA, PARTE HARTZEA ETA EKARPENAK	85
7.1. Politika eta ordezkari-eskarmentua.....	87
7.2. Emakumearen mugimenduak/elkarteak.....	88
7.3. Emakumeak zenbateraino jabetzen diren bereizkeriez	92
8. KONKLUSIOAK. AHALDUZTEA "BIZI-ASPIRAZIO" MODURA	97
8.1. Ahalduztearen indibidualizazioa	99
8.2. Ahalduztearen pribatizazioa	100
8.3. Lan-arloan ahalduzte: eginkizuna egiteke	101
8.4. Prozesuaren beste momentu batean: ahalduzte gizarteratu egin behar da	102
BIBLIOGRAFIA	105
ERANSKINAK	111
E.1 Taula eta grafikoaren aurkibidea	113
E.2 Galdetegia	117



AURKEZPENA



Zaila da gizarte bat eraldatzea gizarte horren ezaugarriak ondo ezagutu gabe. Horregatik Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak azken 25 urte hauetan sekulako ahalegina egin du gure gizarteko emakume eta gizonen egoera ezagutzen laguntzen diguten ikerketak egiten.

Helburu horrekin berarekin landu du Emakunde "Emakume helduen ahalduntze-prozesuak Euskal Autonomia Erkidegoan" azterlana. Azterlan honek Emakunde bultzatutako ikerketa-ildo bat ixten du: EAEko emakumeek, eguneroko praktiken bidez, belaunaldiz belaunaldi zuzenean transmititutako ahalduntze-prozesuaren egoeraren jakintza aplikatura bideratutako ildo, hain zuzen ere. Lehen azterlana nerabeei buruzkoa izan zen, 2009. urtean egin; bigarrena, aldiz, 65 urteko edo gehiagoko emakumeei buruzkoa, 2012an egin.

Hirugarren azterlan honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakume helduen, hots, 18 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeen ahalduntze-prozesuen egungo egoera eta negoziazio-ahalmena zein den jakitea. Ikerlan honetako helburu bereziak izan dira emakume hauek hautematen duten autonomia indibidualaren maila zein den jakitea; emakume kolektibo horrek egun zer praktika sozial egiten dituen jakitea, jarduerak pribatuak/etxeakoak diren edo publikoak/kolektiboak diren bereiztuz; eta ahalduntze indibidualaren eta ahalduntze sozial edo politikoaren artean zer desberdintasun dauden jakitea.

Lan honekin ixten da gure herriko generazio ezberdinetako emakumeen ahalduntze prozesuen argazkia, eta honek laguntzen digu gizarteak dituen behar eta eskaerei erantzungo dioten politika egokiak diseinatzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiet ikerlan hau posible egin duten pertsona guztiei eta bereziki ikerlana egiteko beharrezkoak ziren galderari erantzun dieten emakumeei, euren ekarpenik gabe ezinezkoa bailitzateke honelako ikerketa bat egitea. Argitalpen honek hausnarketarako balio izatea espero dut eta etorkizuneko berdintasun politikak diseinatzeko laguntzea.

Eskerrik asko.

Izaskun Landaida Laringoitia

EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

1

SARRERA

Txosten honetan aurkezten diren emaitzak "Emakume helduen ahalduntze-prozesuak Euskal Autonomia Erkidegoan" azterlanarenak dira. Gai horri buruz 18 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeek zer iritzi duten jakin nahi izan da azterlan horren bidez.

Kolektibo horretan 704.000 lagun inguru daude gure autonomia erkidegoan, hau da, hiru emakumetik ia bi, eta hiru lagunetik bat, biztanle guztiak kontuan hartuta. Pisu kuantitatibo horrek agerian uzten du zein garrantzitsua den emakume "helduek" ahalduntzeari buruz zer iritzi duten jakitea.

Dena den, azterlan honetan kontuan hartu da emakumeen kolektibo zabal horren barruan dagoen aniztasuna, oso bestelakoak baitira bai belaunaldiak, bai bizitza-ibilbideak. Horregatik, hiru adin-talde handitan segmentatu dira emaitzak (18 urtetik 30 urtera, 31 urtetik 45 urtera, eta 46 urtetik 64 urtera), horrela hobeto hurbilduko baikara errealitate konplexu horretara.

Azterlan honek Emakundek bultzatutako ikerketa-ildo bat ere ixten du: EAEko emakumeek, eguneroko praktiken bidez, belaunaldiz belaunaldi zuzenean transmititutako ahalduntze-prozesuaren egoeraren jakintza aplikatura bideratutako ildoak, hain zuzen ere. Lehen azterlana nerabeei buruzkoa izan zen (EMAKUNDE, 2009); bigarrena, aldiz, piramide demografikoaren goialdeari buruzkoa, hau da, 65 urteko edo gehiagoko emakumeei buruzkoa (EMAKUNDE, 2012). Eskuarlean duguna hirugarrena da, eta falta den adin-tartea betetzera letorke. Azterlan honetan, telefono bidezko 1.602 galdetegi egin zaizkio 18 urtetik 64 urtera arteko emakume-lagin esanguratsu bati.

Horren haritik, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten guztiei, iritzia emanaz azterlan hau ahalbidetu duten emakumeei, bereziki.

2

HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA

2.1

1. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakume helduen, hots, 18 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeen ahalduntze-prozesuen egungo egoera eta negoziatio-ahalmena zein den jakitea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

2.2

1. Hautematen duten autonomia indibidualaren maila zein den jakitea, bai oro har, bai maila zehatzetan: bizilekua, ekonomia, afektua, etab.
2. Emakume kolektibo horrek egun zer praktika sozial egiten dituen jakitea, jarduerak pribatuak/txekoak diren edo publikoak/kolektiboak diren bereiztuz.
3. Emakume helduen kolektiboak hautemandako ahalduntze-mailen artean, hots, ahalduntze indibidualaren eta ahalduntze sozial edo politikoaren artean zer desberdintasun dauden jakitea.
4. Emakume helduen kolektibo honetan dauden hiru belaunaldien arabera (18-30 urte, 31-45 urte eta 46-64 urte), ahalduntze-prozesuetan eta -praktiketan egon daitekeen aniztasuna aintzat hartzea.
5. Emakume helduen hiru belaunaldiak banan-banan aztertzea (eta estatistikoki adierazgarri izateko moduan).
6. Jarraipena ematea Emakundek aurreko bi azterlanetan hasitako ikerketa-ildo bati: emakume nerabeen eta adineko emakumeen ahalduntzea.
7. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakumeen belaunaldi guztien ahalduntze-prozesuen egungo egoeraren ikuspegi orokorra ahalbidetzea, adierazle homogeneoak daudela baliatuta.
8. Jakintza areagotzea Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planeko Lehen Esku-hartze ardatzeko hiru programen egungo egoeraz (Emakumeak Ahaldundu eta balioak aldatzeari buruzko ardatza).
9. Dagokien agenteei proposamenak egitea egun indarrean dauden politikak beste era batera bideratzeko, eta eskaera edo premia berriak hautematea, hala badagokio.

3

IKERKETAREN DISEINUA

Kapitulu honetan, azterlan honen diseinu teorikoa eta metodologikoa eraikitzeke balio izan duten funtsezko ildoak aurkezten dira. Kapitulu zinez garrantzitsua da, argibideak ematen baititu azterlanaren emaitzak interpretatzeko zein ikuspuntu erabili den jakiteko.

IKERKETA-ILDO BATI JARRAIPENA ETA BURU EMATEA

3.1

Emakundek egindako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planetan (2006, 2010) ahalduntzea hartzen ari den garrantziari erantzunez, erakunde horrek ikerketa-ildo bati ekin zion, zuzenean jakin ahal izateko bai EAEko emakumeek zer iritzi duten ahalduntze-prozesuaren egoeraz, bai prozesu hori nola islatzen edo garatzen den emakume horien eguneroko jardueretan.

Azterlan horietan lehena "EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta" txostena (EMAKUNDE, 2009) izan zen, 14 urtetik 17 urtera arteko neska-mutilek autonomiarako eta erabakiak hartzeko zer estrategia dituzten jakiteko egina.

Kontuan hartuta, alde batetik, aurtengoa "Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Urte Europarra" izendatu dela, eta, bestetik, zahartze-prozesuak dakarren erronkagatik "adineko" pertsonen kolektiboa gero eta garrantzi eta interes handiagoa hartzen ari dela, Emakundek egokitzen jo zuen ikerketa-ildoan logika kronologikoa haustea eta zuzenean jauzi egitea piramide demografikoaren goialdera, horrela jakingo delako zertan den gure erkidegoan 65 urte edo gehiago dituzten emakumeen ahalduntze-prozesua. Horren emaitza da "Adineko Emakumeen Autonomia Euskadin eta ahalduntze-prozesuei egin dieten ekarpena" txostena (EMAKUNDE, 2012). Txostenaren landa-lana 2011ko urriko bigarren erdialdean eta azaroaren hastapenetan egin zen.

Hortaz, 18 urtetik 64 urtera arteko emakumeen taldeari heltzea falta zen, adin-talde horretan dauden belaunaldien artean ahalduntzeari buruz egon daitezkeen iritzi eta praktika desberdinak kontuan hartuta, estatistikei jarraituz. Horregatik, azterlan honekin itxi eta burutu egiten da Emakundek bultzatutako ikerketa-ildo hori, zeina aitzindaria izan den, zalantza izpirik gabe, ahalduntze-prozesuaren planoei buruz emakumeek eurek duten iritzia zuzenean jakin nahi izateagatik. Horrek ahalegin handia eskatu du, prozesu hau eguneroko praktikan eta diskurtsoan gauzatzeko ahalegina, jakina baita zer-nolako mugak dituen adierazleak sortzeak eremu honetan, hau da, autonomiaren eta erabakiak hartzeko ahalmen-mailaren eremuan, non pertzepzioek eta beste elementu subjektibo batzuek garrantzi handia hartzen duten.

**AHALDUNTZEAREN
KONTZEPTUARI
HELTZEA,
TESTUINGURUAN
KOKATUTA**

3.2

Gehiegi sakondu nahi gabe, ahalduntzearen kontzeptua ingelesezko "empowerment" hitzetik dator, eta boterea areagotu, indartu... esan nahi du. Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. eta V. planetan islatu denez, ahalduntzea "emakumeak, banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egitearekin dago lotuta, horrela areagotuko dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea, bai eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena ere." (2006:44; 2010:80)

Ahalduntzea orohartzailea da, edo dimentsio anitzekoa, eta emakumeek gizarte-bizitzaren eremu guztietan, eta horrenbestez, norbere identitatearen eraikuntzan gehiago parte hartzeko beharrari lotuta dago (ROWLANDS, 1997; MOSADALE, 2003; SÁNCHEZ ÁLVAREZ, 2007; FUNDACIÓN ISONOMÍA, 2009). Hortik dator ahalduntzea honela ulertu beharra: "Ahalduntzearen prozesua ez da banakora mugatzen, taldearen eremura ere zabaltzen da" (EMAKUNDE, 2010:81).

Horrenbestez, elkarri lotuta daude kontzientzia hartzea, kontzientzia hori gizartean gauzatea eta hortik politika eraldatzea, eta hala islatzen da MURGUIALDAY eta VÁZQUEZ-en testuan (2005:43-44). Ahalduntzearen prozesua burutzeko, hiru maila edo azpiprozesu lortu behar dira: "norberaren" boterea (nor bere premiez edo interesez jabetzea), zeina autonomiaren kontzeptuarekin estuki lotuta dagoen; boterea "elkarrekin", zeinak antolamendu sozial edo kolektiboren bat eskatzen duen norbere bizitzaz erabaki ahal izateko; eta, azkenik, boterea "zertarako", zeinak mobilizazio politikoa eskatzen duen genero-desberdintasun eta -mendekotasun egiturak eraldatu ahal izateko.

Eskuartearen dugun esparruan, gure ustez ahalduntzeari enpirikoki heldu behar zaio, baina ez osotasunean, Emakundek baliatzen dituen hiru maila edo azpiprozesuen arabera baizik; gogoan izan behar da Berdintasunerako V. Planaren esku-hartze ardatz nagusietariko bat dela (EMAKUNDE; 2010:75 eta hur.)

Emakumeek apurka-apurka hartzen dute beren bizitzan gaineko kontrola, eta kontzientzia indibidualetik (norberaren boterea) kontzientzia sozialerako (boterea elkarrekin) eta politikorako (boterea zertarako) jauzia hainbat modutan ager daiteke, emakume bakoitzaren inguruabarren arabera. Horren haritik, esan daiteke prozesua egoeren eta uneen menpe ere egon daitekeela, hau da, lineala ez den logika baten menpe; aitzitik, bulkada edo geldialdien menpe dago, une horretako posizio eta testuinguru sozialaren arabera (DEL VALLE ET AL. 2002: 201).

Ahalduntzea prozesu bat da, testuinguru jakin batean kokatu beharrekoa. Ikusmolde hori MAGDALENA LEÓNek ere aipatu du (2001:104), eta ikuspegi teoriko gisa eutsi zaio bai EAEko nerabeei buruzko azterlanean (EMAKUNDE; 2009), bai adineko emakumeei buruzkoan (EMAKUNDE; 2012), bai eta Emakunderen 2009ko Berdintasunerako Gunearen ondorioetan ere, non ahalduntze-prozesuaren pluraltasun semantikoa islatzen den: ahalduntzea gauza desberdina izan daiteke emakume bakoitzarentzat, bakoitzak zer premia eta helburu dituen, testuinguru pertsonalaren, bizitza-unearen eta gizarte-ingurunearen arabera." (EMAKUNDE; 2009)

Ahalduntze-prozesuari buruzko ikuspegi horren ondorioz, galdetegiko galderei emandako erantzun edo emaitzak ezaugarri "soziologikoak" gogoan izanda interpretatu behar dira,

hau da, 18 urtetik 64 urterako emakumeek iritzia zer gizarte-testuingurutan eta zer bizitza-testuingurutan eman duten ahaztu gabe. Horri esker, ahalduntze-prozesuaren eskakizun-maila edo helmena desberdina izango da kasu bakoitzean, pertsona bakoitzarentzat, belaunaldi bakoitzarentzat.

Bistan denez, ikerketa honetan aztertu diren emakumeen kolektiboa oso da zabala eta askotarikoa, nola belaunaldiei eta sozializazio-prozesuei dagokienez, hala bizitza-zikloan egun duten posizioari dagokionez. Aztergai ditugun emakumeak 1948tik 1994ra bitartean jaioak dira. Baina hurrengo atalean esango denez, aniztasun horri erantzuteko, hiru adin-tarte ezarri ziren laginean: 18 urtetik 30 urtera, 31 urtetik 45 urtera, eta, azkenik, 46 urtetik 64 urtera, adin-tarte bakoitzak dagokion estatistika-adierazgarritasuna duela. Ziurtasunez esan dezakegu txosten bakar honetan, guztira lau txosten erakusten direla: adin-tarte bakoitzari dagokiona eta emakume "helduen" osotasunari dagokiona.

**ESTRATEGIA
METODOLOGIKOA:
METODO
KUALITATIBOA
ETA KUANTITATIBOA
ONDOZ ONDO
KONBINATZEA**

3.3

Emakundek ikerketa-ildo bat hasi zuen nerabeen eta emakume helduen ahalduntzea zertan zen ikusteko. Ikerketa-ildo horrekin jarraitzeko, estrategia metodologiko bera baliatu beharra zegoen beste kolektibo batera hurbiltzeko, oraingoan, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 18 urtetik 64 urterako emakumeen kolektibora hurbiltzeko.

Lehenik eta behin, "miaketa estrategia" bat abiatu genuen, "metodo kualitatiboa" medio (eta haren tekniketako bi, "elkarrizketa sakonak" eta "eztabaida-taldeak"), horrek ahalbidetuko baitzuen, batetik, zuzenean jakitea emakumeek eguneroko bizitzan nagusiki zer egoera bizi dituzten, eta, bestetik, informazioa biltzeko tresna bat prestatzea, emakumeen belaunaldi horien errealitateetara hobeto egokitua. Bigarrenik, "adierazgarritasun estrategia" bat abiatu genuen, "metodo kuantitatiboa" medio (eta haren tekniketako bat, "telefono bidezko galdetegia"), horrela lortuko baitzen emakumeen iritziei buruzko informazioa, zuzena eta estatistikoki adierazgarria.

Iraganeko esperientziak hain onuragarriak izan zirenez, egokitzen joan zen praktika metodologiko egoki hori kontuan hartzea eta baliatzea, lehen aipaturiko ikuspegi teorikoa praktika egokitzen hartu den bezala.

IKERKETAREN FASEAK

3.4

Atal honetan, azterlanaren faseak azaltzen dira, aurrez aipatutako ondoz ondoko konbinazioa kontuan hartuta.

TESTUINGURU BIBLIOGRAFIKOA

3.4.1

Aztergaiaren alderdi askotarikoak eta adierazgarrienak testuinguruan kokatzeko, erreferentzia bibliografikoak bilatu beharra zegoen; hori izan zen ikerketa honen prozesuaren lehen fasea. Horren haritik, azpimarratu behar da ez dagoela emakumeen ahalduntzearen egoerari osotasunez heltzen dion ikerketa aplikatu kuantitatiborik. Txosten honetan zehar ikusiko dugunez, emakumeen ahalduntzearekin eta erabakiak hartzearekin zeharka lotuta daude erreferentzia bibliografikoetan aipatzen diren praktikak edo iritziak, eta bereziki, arlo publikoa/lana, etxeko arloa/familia eta arlo pertsonala kudeatzeko estrategiei buruzko analisiak. Gai horri heltzeko, adierazle kualitatiboak eta beste hausnarketa-mota batzuk baliatu dira.

Ahalduntzearen eremua, zalantzarik gabe, oso da zabala, eta aldi berean, oso zehatza, eta gogoan izan behar dugu eremu horretako erreferentzia enpirikoak urriak direla, eta horretaz gain, ez dugu ahaztu behar ez direla oso agerian egon emakumei buruzko analisiak, oro har, eta analisi enpirikoak, bereziki. Zalantzarik gabe, historiaren ikuspegi patriarkalaren gailentasunaren erakusgarri da hori. Izan ere, ikuspegi horrek emakumea etxearen eta familiaren eragile nagusi izendatzen du –agerian zein ezkutuan– eta eremu horretako gertaerak, ustez, garrantzi edo intentsitate apalagokoak dira eremu publikoaren aldean (eremu politikoa, lanekoa), hots, narrazioan gailendu denaren aldean, zenbait historialarik adieraziari jarraituz (PERROT; 1995; FOLGUERA; 1995 eta 1997; SEGURA; 2006).

Asmo bera izan dugu azterlan honetan eta aurrekoetan: azterlan aplikatuen bidez emakumeen errealitateak ikusarazten laguntzeko gai izan gaitzela, besteak beste; sortuko ahal da mikrohistoria moduko bat, gure eguneroko bizitzan egiturazko gizarte-aldaketak eragingo dituen, isilean.

ELKARRIZKETA SAKONAK

3.4.2

Bibliografia bilatu ondoren, bibliografia irakurri eta aztertzearekin batera, azterlanaren bigarren faseari ekin genion: ahalduntzearen maila eta dimentsioei buruzko elkarrizketa sakonak egin genizkien hiru informazio-emaile estrategikori. Egokitzen jo genuen jakintza profesionalari, generoaren dimentsioa ez ezik, belaunaldiarena ere gehitzea, azterlaneko emakume guztiak hartu ahal izateko.

Hauek izan ziren elkarrizketatuak:

1. Carmen Diez Mintegui: EHUko Antropologia irakaslea; esperientzia handia du ahalduntzearekin lotutako gaiak ikertzen.

2. Raquel Royo: Soziologia irakaslea Deustuko Unibertsitatean; genero-harremanetan espezializatuta dago.

3. Josebe Iturrioz: feminista aktiboa eta genero-berdintasunerako agentea.

Diseinatu zen gidoia ireki samarra izan zen, fase bibliografikoan ikusitako alderdi interesgarrietan eta ikerketaren helburuetan oinarritua. Gidoia hautatutako pertsonei bidali zitzairen, azterlanaren egiaztagiri ofizialarekin batera. Elkarrizketa informazio-emaielen egoitzetan egin zen.

EZTABAIDA-TALDEAK

3.4.3

Azterketa sakonak egiteari eta haien lehen analisia egiteari esker, hobeto mugatu zen azterlanaren xedea, eta, horretan oinarrituta, hiru eztabaida-taldeek gidoiak diseinatu ziren. Hiru talde horietan 24 emakumek parte hartu zuten. Taldea osatzeko irizpidea oso argia izan zen: adina izan zen aldagai homogeenoa, dinamiketan sartutako emakumeak belaunaldi berekoak izateak taldea egituratzen lagunduko zuen hipotesian oinarrituta. Baliteke generoaren eta belaunaldien lotura hori ahulagoa izatea talde gazteenean –18 urtetik 30 urtera artekoen artean–, muturretan zeudenak oso esperientzia desberdinez ari zirela ematen baitzuen.

Aldagai homogeen horiei beste aldagai heterogeen batzuk gehitu zitzaizkien, adin-tarte bakoitzaren ezaugarriak ahalik eta fidelen eman ahal izateko (bizilekua, hezkuntza, lan-egoera eta gizarte-partaidetza).

Hiru eztabaida-talde hauek egin ziren:

- 1) 1. taldea. 18 urtetik 30 urtera arteko emakumeak. Tolosaldea. Gipuzkoa.
- 2) 2. taldea. 31 urtetik 45 urtera arteko emakumeak. Bilbo. Bizkaia.
- 3) 3. taldea. 46 urtetik 64 urtera arteko emakumeak. Gasteiz. Araba.

TELEFONO BIDEZKO GALDETEGIA, UNIBERTSOA ETA LAGINA

3.4.4

Lehenengo hiru faseetan, galdetegia diseinatzeko behar ziren baldintzak lortu genituen, ikerketa honen helburuak lortzeko "giltzarria" diseinatzeko baldintzak, hain zuzen ere. Adineko emakumeei buruz egindako azterlanean (EMAKUNDE, 2012) baliatutako egitura eta tonu bera erabili dugu, neurri batean. Hala ere, horrek ez du eragotzi zailtasunak egoera.

Zailtasunak ez dira sortu ahalduzaren dimentsioak modu enpiriko edo aplikatua islatzeko konplexutasunagatik bakarrik, badira beste bi gertakari gehiago. Alde batetik, hiru adin-talde daude, eta diskurtso komun bat homogeenizatu beharra zegoen; eta, bestetik, telefono bidezko galdetegiaren teknikak sintesi-maila handiagoa eskatzen zuen galdera-erantzuna dialektikan –baliteke azken horrek eragin handiagoa izatea–.

Fase kualitatiboan inplikaturako pertsonen ekarpenak, Emakundeko kideenak, eta lagin osoaren % 4ri aurre-test bat egin izana lagungarri izan ziren telefono bidezko galdetegiak egiteko. Galdetegi eranskinean dago, gaztelaniaz eta euskaraz. Asko izan dira bai galderak –guztira hirurogeita hamabi (72)–, bai erantzunak –hirurehun baino gehiago, gehienak itxiak, baina badira ireki batzuk ere–; hala ere, galdetegi bakoitza erantzuteko denbora 16 minutu izan zen, batez beste.

Hasierako unibertsoa, Biztanleria eta Etxebizitzari buruzko 2010eko Inkestaren arabera, hau izan zen: 703.673 emakume, 18 urtetik 64 urtera bitartekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnak; gure autonomia erkidegoko biztanleen heren bat ia (% 32,6). 3.1. taulan ikustenenez, emakumeen kolektiboa hiru adin-tartetan zatitu zen, eta horietako bakoitza, lurralde historikotan.

Lagina egiteko, 3.2. taulan ikustenenez, unibertsoa bigarren aldiz segmentatu zen, lau biztanleria-tarte edo egoitza-habitaten arabera: adin horretako 10.000 emakume baino gehiago; 5.000 eta 9.999 emakume artean; 2.000 eta 4.999 emakume artean, eta, azkenik, 2.000 emakume baino gutxiago.

3.1. TAULA Emakume unibertsoaren banaketa, adin-taldeka. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoak eta guztirakoa. Guztira eta ehunekoak.

ADIN-TARTEAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE OSOA	% , GUZTIAREKIKO
18 urtetik 30era	23.590	80.902	47.413	151.905	21,6
31 urtetik 45era	39.248	140.184	83.609	263.041	37,4
46 urtetik 64ra	40.992	155.577	92.155	288.727	41,0
EAEko emak., guztira	103.830	376.663	223.177	703.670	100,0
% , GUZTIAREKIKO	14,8	53,5	31,7	100,0	

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika. 2010. Egileek landua

3.2. TAULA 18 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeen unibertsoaren banaketa, habitataren tamainaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoak eta guztirakoa. Guztira.

UDALERRI MOTA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
2.000 emakume baino gutxiago	79.051	229.482	92.795	401.329
2.000 eta 4.999 emakume artean	5.946	63.480	55.423	124.849
5.000 eta 9.999 emakume artean	3.341	43.854	45.658	92.852
10.000 emakume baino gehiago	15.492	39.847	29.302	84.641
EMAKUMEAK, GUZTIRA	103.830	376.663	223.177	703.670


Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika. 2010. Egileek landua

Segmentazio-aldagai bi horiek, hau da, adin-talde bakoitzaren pisu proporzionalak eta habitataren tamainak, lagin bat ematen dute, zeina estatistikoki esanguratsua den bai adin-talde bakoitzerako, bai osotasunerako; laginaren estatistika-errorearen muga +/-% 5 da, % 95,5eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50$ izanik; 3.3. taulan ikusten da: 1.602 galdetegi, guztira. 3.1. grafikoan, azterlanean parte hartu duten emakumeen banaketa proporzionala adierazten da, bizi diren lurralde historikoaren arabera.

3.3. TAULA 18 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeen laginaren banaketa, habitataren tamainaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoak eta guztirakoak. Guztirakoak.

UDALERRI MOTA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
2.000 emakume baino gutxiago	44	51	44	139
2.000 eta 4.999 emakume artean	48	91	105	244
5.000 eta 9.999 emakume artean	66	93	72	231
10.000 emakume baino gehiago	259	340	389	988
EMAKUMEAK, GUZTIRA	417	575	610	1.602

3.1. GRAFIKOA Laginaren banaketa, bizi diren lurralde historikoen arabera. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak.



3.4. taulan, zehatz-mehatz azaltzen da landa-lana nola banatu den, kontuan hartuta udalerrri hautatuak, habitataren tamaina, unibertsoa eta emakume lagina, bai eta laginak duen pisua ere, nola lurralde historiko bakoitzean, hala Euskal Autonomia Erkidego osoan.

3.4 TAULA Egindako landa-lanaren banaketa. Udalerriak, segmentua, eta galde-
tegien lagina. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoak eta
guztirakoa.

LURRALDEA	BIZTANLE KOPURUA	UDALERRIA	EMAKUMEAK	LAGINA	LAGINA/ LURRALDEA	LAGINA/ GUZTIRA
ARABA	2.000 baino gutxiago	Laguardia	459	17	% 7,1	% 1,1
		Asparrena	498	7	% 2,9	% 0,4
		Agurain	1.540	20	% 8,3	% 1,2
	2.000 - 4.999 artean	Amurrio	3.258	22	% 9,1	% 1,4
		10.000 baino gehiago	Gasteiz	77.088	175	% 72,6
GUZTIRA			82.843	241	% 100,0	
BIZKAIA	2.000 baino gutxiago	Markina-Xemein	1.429	36	% 4,2	% 2,2
		2.000 eta 4.999 artean	Muskiz	2.322	35	% 4,1
	Zalla		2.712	35	% 4,1	% 2,2
	Sopela		4.149	36	% 4,2	% 2,2
	5.000 eta 9.999 artean	Bermeo	5.230	39	% 4,5	% 2,4
		Amorebieta-Etxano	5.733	41	% 4,8	% 2,6
		Durango	9.151	55	% 6,4	% 3,4
	10.000 baino gehiago	Basauri	13.244	63	% 7,3	% 3,9
		Portugalete	15.055	60	% 7,0	% 3,7
		Getxo	27.163	70	% 8,1	% 4,4
		Barakaldo	31.805	109	% 12,7	% 6,8
		Bilbo	112.231	280	% 32,6	% 17,5
	GUZTIRA			230.224	859	% 100,0
GIPUZKOA	2.000 baino gutxiago	Aduna	128	3	% 0,6	% 0,2
		Ikaztegieta	142	6	% 1,2	% 0,4
		Alegia	495	10	% 2,0	% 0,6
		Zizurkil	845	10	% 2,0	% 0,6
		Deba	1.636	15	% 3,0	% 0,9
	2.000 eta 4.999 artean	Villabona	1.761	15	% 3,0	% 0,9
		Aretxabaleta	2.090	8	% 1,6	% 0,5
		Zumaia	2.894	16	% 3,2	% 1,0
		Elgoibar	3.352	20	% 4,0	% 1,2
		Azpeitia	4.297	21	% 4,2	% 1,3
		Bergara	4.401	20	% 4,0	% 1,2
		Pasaia	4.806	31	% 6,2	% 1,9
		5.000 eta 9.999 artean	Lasarte-Oria	5.739	20	% 4,0
	Hernani		5.957	20	% 4,0	% 1,2
	Zarautz		7.106	21	% 4,2	% 1,3
	Eibar		8.210	35	% 7,0	% 2,2
	10.000 baino gehiago	Errenteria	12.159	36	% 7,2	% 2,2
		Irun	19.003	40	% 8,0	% 2,5
		Donostia	58.856	155	% 30,9	% 9,7
	GUZTIRA			143.877	502	% 100,0
GUZTIRA				1.602		% 100

Azkenik, adierazi behar dugu oinarrizko irizpide bi hauek ere kontuan hartu zirela emakumeen lagina hautatzeko prozesuetan: Ezarritako talde bakoitzaren ikasketa-maila eta lan-egoera.

LANDA-LANARI BURUZKO OHARRAK

3.5

Ikerketa-ildo honetan aurretik egindako bi azterlanetan bezala, informazio-emaile estrategi-koek hasieratik jakin zuten nolako konplexua izango zen azterlana. Bazuten Emakundek bultzatutako lan-ildo horren berri, eta horri buruzko ekarpenak helarazi zizkiguten, baina baita zituzten mugak ere, ahalduntze-prozesuari kuantitatiboki heltzeak berez baitakar mugak izatea; gogoeta ere egin dute kontzeptuak berak duen bideragarritasun enpirikoa-ren gainean.

Hiru eztabaida-taldeetan parte hartu zuten emakumeek, eztabaida-taldeen dinamikari esker, bizi-ibilbidean duten posizioaren arabera egunerokoan zer kezka eta arazo dituzten azaldu ahal izan zuten. Esate baterako, lan-arloak eta familia-arloak duten pisua, norbere kezkak kudeatzeko modua, egunerokoa kudeatzeko ezartzen diren estrategiak, emakumeen arteko elkarrizketetan hartutako erabakiekin espero diren emaitzak, beste belaunaldi batzuetako emakumeen eta adin bereko gizonen egoeren artean egiten dituzten konparazioak, eta abarren abarra; horrelako planteamenduei esker, agerian geratzen dira ahalduntzeak dituen mailak, ahalduntzea errealitate horiek interpretatzeko ikuspuntutzat hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 18 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeen laginaren landa-lana 2012ko ekainaren bigarren erdialdean eta uztailaren lehen erdialdean egin zen. Une honetan, egiten dugun lan demoskopikoa egiten dugula, mila oztopo aurkitzen ditugu, eta traba horiek areagotu egin daitezke, zer gai hautatzen dugun eta zer teknika erabiltzen dugun. Kasu honetan, telefono bidezkoa izatea ez da lagungarri izan; bai ordea, zorionez, landu beharreko gaiak edo edukiak hurbilekoak izatea. Hasieran zalantzak egon ohi dira telefono bidezko inkesta bati erantzuteko, inkesta erakunde batek babestua egonagatik ere, baina une hori gaindituta, emakumeek gogotsu parte hartu zuten, gogoeta eginenez; eskertu ere egin zuten herritarrei normalean galdetzen ez zaien gaien inguruan beren iritzia eskatu izanagatik. Gu gaude, ordea, eskerrak eman beharrean; izan ere, azterlan honek ez luke argirik ikusiko emakume horiek parte hartu izan ez balute.

TXOSTENAREN EGITURA

3.6

Hiru kapitulu horiez gain, azterlanaren emaitzak honela egituratu dira:

- 4. kapitulan, bost elementu azaltzen dira testuingurua zein den erakusteko, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 18 urtetik 64 urtera arteko emakumeen kolektiboa zehazteko. Ezarritako hiru adin-taldeetako segmentazioa azaltzen dugu: 18 urtetik 30 urtera, 31 urtetik 45 urtera, eta 46 urtetik 64 urtera. Horien emaitzak berez dira adierazgarriak, lagina egiteko erabilitako irizpideagatik, eta, guztirakoarekin batera, eredutzat hartuko dira emaitzak azterlanean zehar grafikoetan eta tauletan aurkezteko. Adinaren eta

–neurri handi batean– belaunaldien irizpideari beste lau aldagai garrantzitsu gehitu zaizkio: amaitutako ikasketa-maila, bizikidetzeta mota, lan-merkatuan esperientzia izatea eta, azkenik, egungo lan-egoera.

- 5. kapituluak ikerketaren gai nagusietako bat du ardatz: norberaren autonomia. Beti hartu da kontuan emakumeek zer pertzepzio duten balio propio edo pertsonalen multzoan duten garrantzi- edo hierarkia-mailaz, egoera horrek eguneroko bizitzan duen finkatze-mailaz, aurreko belaunaldiekin (amekin, amamekin) konparatuta bizi duten egoeraz, eta, azkenik, beren ibilbide biografikoan praktikan jartzeko daukaten ahalmen-mailaz. Bereizkeriari buruz izan dituzten esperientziei buruzko informazioa ere horregatik sartu dugu kapitulu honetan.
- Azken horrekin lotuta, 6. kapituluaren ardatza lan-arloa da; eremu hori paradoxaz bete dago 18 urtetik 64 urtera bitarteko euskal emakumeen egunerako bizitzan. Izan ere, enplegua, arlo produktiboan egotea –instituzionalizatuta dagoen moduan– sine qua non baldintza da autonomia indibidualaren balioa gauzatzeko; hala ere, emakume-belaunaldi horiek adierazten dutenez, oraindik ere eremu horretan gertatzen dira, nagusiki, desberdintasunaren agerraldi ohikoenak, nabariak eta sotilenak.
- 7. kapitulan, emakumeen mugimenduetan duten partaidetza eta iritziari buruzko adierazleak aurkezten dira, baita hiru emakume-belaunaldi horiek bereizkeriari buruzko konzientzia-mailaz duten pertzepzioa ere.
- 8. kapituluak ondorio modukoa da argiro, eta lau oinarriko planteamendu azaltzen ditu, batez ere hausnarketa eta eztabaida ildoak sortzera bideratuak. Horregatik diogu ahalduntzea indibidualizatzeko joera dagoela 18 urtetik 64 urtera arteko emakumeen artean. Joera horrekin batera, beste bat dago estuki lotua: ahalduntzea pribatizatzea, hau da, ahalduntzea harreman pertsonaletako jokabideetan eta etxe/familia girokoetan mamitzea edo gauzatea. Horrek esan nahi du ahalduntzeak maila txikiagoa edo, gutxienez, apalagoa duela eremu publikoan mamitzen denean: alor politikoan, oro har, eta lan-arloan, bereziki. Horregatik, kapitulu hau ixteko, ahalduntzea sozializatu egin behar dela adierazten dugu, hori baita jarraitu beharreko estrategia ahalduntzea indartu eta hobetuko badugu.
- Bibliografiaren ondoren, azken eranskinetan, taulen eta grafikoaren aurkibidea jasotzen da, bai eta erabilitako galdetegiak ere.

Amaitzeko, berriz adierazi nahi dugu nerabeei buruzko azterlanean (EMAKUNDE, 2009) eta adineko emakumei (65 urte edo gehiagokoei) buruzko azterlanean (EMAKUNDE, 2012) baliatutako planteamendua: emaitzak azterlanaren helburu eta xedeen arabera ongien interpretatu izana espero dugu, eta irakurleek ere hala uste dezatela. Badakigu emaitzak beste modu batera ere interpretatu daitezkeela. Horregatik, guretzat pozgarria litzateke ondorio hauek beste azterlan, ekintza edo estrategia batzuk eragingo balituzte, emakumeek erabakiak hartzeko duten ahalmenarekin lotutako gaiak jorratzen jarraitu ahal izateko.

4

TESTUINGURUAREN ADIERAZLEAK

Lehenengo kapitulu honetan, ikerketak aztergai dituen emakumeen testuingurua azaldu dugu. Ez da gure asmoa Euskadin bizi diren emakume hauen azterketa eta erradiografia soziologiko xehatua egitea (adibidez, EMAKUNDEk 2011n eta EUSTATEk 2012an egindakoen antzekoak), baizik eta jakitea zeren arabera edo zergatik erantzun duten erantzun dutena, eta zergatik azaldu duten azaldutako iritzia 18 eta 64 urte bitarteko emakume hauek, ikerketa honetarako ahalduntzeari buruz planteatu dizkiegun kontuen inguruan.

Aurreko kapitulu metodologikoan bezalaxe, honetan ere adina izan da gure aldagai gakoa ikerketa honetako aztergai diren emakumeak taldeka banatzeko. Halaxe erabaki dugu: ez soilik ahalduntzearen inguruan dagoeneko Emakundek abian daukan ikerketa-bideari jarraitu nahi diogulako –18 eta 64 urte bitarteko emakumeen azterketa enpirikoa falta baitzen orain arte bidea bukatzeko– baizik eta adinak, hau da, belaunaldiak, asko balio duelako ulertzeko talde bakoitzeko emakumeek zein sozializazio-prozesu eta esperientzia nahiz bizi-pen izan dituzten, orain arte bizi izan dutenaren arabera. Hortaz, adinak, belaunaldiak, kasu honetan aukera ematen du ikusteko eta ulertzeko zenbateraino gauzatzen duten ahalduntzeko estrategiaren bat emakume-belaunaldi hauek; are gehiago, aukera ematen du iragartzeko zer-nolako joera izango duen talde bakoitzak gerora, etorkizunean.

Horrexegatik saiatu gara kapitulu honetan 18 eta 64 urte arteko euskal emakumeen bereizgarri soziologikoak definitzeko lau elementuak aurkezten, adin-talde bakoitzeko: hezkuntza; gaur egungo elkarbizitza-egoera; aurretiko lan-esperientzia, eta, azkenik, azterketa hau egiteko garaian zuten lan-egoera (2012ko ekaina-uztaila).

SEGMENTATZEA, HIRU ADIN-TALDETAN

4.1

Jakinik ere edozein talde adinaren arabera segmentatzea kinka handi samarra dela berez –talde edo segmentu bakoitzean gertakizun ezberdinak izan direlako–, sinistuta gaude esku artean daukagun ikerketa aplikatu eta kuantitatibo honek norberaren bereizgarrietan baino, belaunaldien eta historien berdintasunean zentratzen den estrategia metodologikoa hartu behar lukeela, nahiz jakin aukera horrek ordaina eskatzen duela (halaxe adierazi zuen WEBERek -1964:13-).

Edonola ere, badakigu errazkeria litzatekeela analisirako gaitasun guztia demografiaren aldagaian zentratzea, hau da, adinak bizi-zikloan markatzen duen posizioan. Izan ere, gizarteko errealitateak hori baino konplexuagoak dira beti, eta garbi bereizitako “kapital sozial” batzuk badaude (EMAKUNDE, 2011b) bizitzako zikloen joanean aurrera egiteko edo ez egiteko daukagun ahalmenean eragin handia daukatena. Eta ikerketa honen taxuak ez digunez uzten aldagai horiek guztiak zuzenean eta sakon aztertzen, zeharka aztertzen bederen saiatuko gara.

Adinaren aurrerabideak baldintzatzen baitu maiz, bizitzako hainbat arlotan bizipen jakin batzuk bizi izana ala ez. Orotara hartuta, gaur egun, gure testuinguruan, gure bizi-bide “tipoak” espazio-denborazko irudikapen soilaz adieraziko bagenituzke, ikusiko genuke gure gizartearen egituraren arabera, ikasketa-aldi luzea edo laburraren ondoren lan-merkatura iritsi ohi garela, eta hor jartzen ditugula praktikan eta garatze bidean ikasitakoak. Horren ondoren etorri ohi da etxetik joatea; eta batzuetan, segidan, beste norbaitekin bizitzea.

Trantsizioa egiteko eta etapak betetzeko prozesu arautu horrek aldaketak izaten ditu bazuetan gure bizitzaren bidean, txikiak batzuk eta handiak besteak, baina "gure eguneroko bizimoduaren errituala" da hori inondik ere –ELIAS (1987:149). Bukatutako ikasketei buruz, familiako etxekoei buruz, lan-esperientziari buruz eta gaur egungo lan-egoerari buruz eta norberak bere dirua egiteari buruz ondoren azalduko ditugun emaitzak, dudarik gabe, adinaren arabera baldintzatutakoak dira hein batean; alegia, demografiaren aldetik trantsituraren –edo instituzionalizazioaren, BOURDIEU-ren hitzetan (1988)– prozesu bateko edo beste baten bizipen edo esperientziak bizitzeko moduan egotearen arabera, hezkuntza, elkarbizitza nahiz lanaren arloan.

Hala, Euskadin bizi diren 18 eta 64 urte arteko emakumeen artean hiru adin-kohorte banatu ditugu. Lehenik eta behin, gaur egun 18 eta 30 urte bitartean daudenak, alegia, 1982 eta 1994aren artean jaioetakoak. *Demokraziaren belaunaldia* deitura jarri zaie, grosso modo, erabat egoera soziopolitiko demokratikoan eta egoera ekonomiko egonkor samarrean gizarteratu direlako, berdintasunarekin lotutako irizpideak gero eta leku handiagoa dutela sozializazio formal nahiz informalean. Gaur egun, gehientsuenak buruaski izateko prestatzen ari dira (lanean nahiz etxean) edo oraintxe izaten hasita daude.

Bigarrenik, gaur egun 31 eta 45 urte bitarteko adina daukaten emakumeak, alegia, 1967 eta 1981. urteen artean jaioetakoak. *Trantsizioa belaunaldia* esaten zaie hauei: orokorrean, trantsizio demokratikoko giroan egin zituzten sozializazioko lehen urratsak, ekonomia kinkan zegoela, berdintasunarekin lotutako irizpideak beren lekua hartzen ari zirela gizarteratze formal nahiz informalean. Gaur egun, gehientsuenak dagoeneko buruaski dira orain bizi duten zikloan, bai lanean eta bai etxean.

Eta, hirugarrenik, gaur egun 46 eta 64 urte bitarteko adina duten emakumeak, hau da, 1948 eta 1966 urteen bitartean jaioetakoak. *Desarrollismoaren belaunaldia* osatzen dute, eta orotara esateko, demokraziarik gabeko egoeran gizarteratu ziren, berdintasun-irizpideek oso leku eskasa zutela sozializazio formal egiten den lekuetan, are eskasagoa informalean. Gaur egun, gehienak egonkortuta edo bere horretan daude beren bizitzako ibilbidean.

4.1. taulak erakusten duen bezala, Euskadin sailkatu ditugun hiru adin-talde bakoitzak biztanleria osoaren barruan daukan zatiaren arabera, emakume gazteenen taldeak (18 eta 30 urteko adinekoena) ikerketan parte hartu duten emakumeen % 26 osatzen du. Batez besteko adina, 24,09 urte. Bigarren taldea, 31 eta 35 urteko bitartekoena, osotik % 36 da, eta batez besteko adina 39,51 urtekoa da. Bukatzeko, 46 eta 64 urte arteko emakumeak % 38 baino pixka bat gehiago dira ikerketa honetan, eta batez besteko adina 55,04 dute. Hortaz, ikerketa honetako batez besteko adin globala 41,41 urtekoa da.

4.1 TAULA Segmentazioa hiru adin-taldetan, eta batez besteko adina. Ehunekoak.

ADIN-TALDEAK	%	URTEAK, BATEZ BESTE
18-30 urte bitartekoak	26,0	24,09
31-45 urte bitartekoak	35,9	39,51
46-64 urte bitartekoak	38,1	55,04
GUZTIRA	100,0	41,41


Argi ikusten da, hortaz, gizartearen adin bereizgarri horiek banatuta, gure asmo nagusia zera izan dela, erakustea zenbateraino markatzen duten 18 eta 64 adin-tarteko euskal emakumeek bizi izan dituzten belaunaldi ezberdinek, hau da, bizi izan dituzten ibilbide eta esperientzia ezberdinek, ahalduntzeari buruzko kontuetan agertu dituzten planteamenduak eta egintzak.

BUKATUTAKO IKASKETEN MAILA

4.2

4.1. grafikoaren emaitzek argi erakusten dute adinaren eta ikasketen korrelazioa: zenbat eta adin txikiagoa orduan eta bukatutako ikasketa gehiago, eta alderantziz. Hala, bada, soilik lehen hezkuntzako ikasketak bukatuta dituztenen proportzioa adin altuko taldeetan da handiena (% 47,7) eta maila hori gero eta gehiago gaitzen da adinak behera egiten duen heinean (% 16,5 eta % 5,5, hurrenez hurren, beste taldeetan). Alderantziz, bukatutako ikasketa-maila altuenak, bai bigarren mailakoak bai unibertsitatekoak, 1967 eta 1994 urteen artean jaiotako taldeetan agertzen dira (% 80tik gora). Kasu horretan, 46 eta 64 urte bitarteko adina daukaten emakumeen taldeak ditu emaitza baxuenak.


4.1. GRAFIKOA Bukatutako ikasketak. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak.



Nolanahi, adierazle honen bitartez gure asmoa ez da beste behin ere nabarmentzea orokorrean gero eta jende askoz gehiago, eta batez ere, askoz emakume gehiago, joaten dela eskolara gaur egun; aski jakina da hori. Alderantziz, ikerketa honetarako, begi-bistakoa da ikasketen aldagaia oso interesgarria dela, bere horretan; hipotesizat hartzen badugu korrelazio positiboa dagoela ikasketa-maila altuagoaren eta buruaskia izateko eta nor bere erabakiak hartzeko estrategien gaineko kontzientziazio altuagoaren artean. Aurrerago ikusiko dugu aldagai hau landuta.

4.2. grafikoaren emaitzek euskal emakumeen egoera zibila irudikatzen dute, bereizitako hiru adin-taldean arabera eta guztira. Datu hori adierazle gakoa denez pertsonak bizi-zikloan une batean daukaten kokapenaren berri emateko, ondo erakusten du 31 urtetik 64 urte bitarteko adinekoen bi taldeetan emakume gehientsuenak ezkontuta edo bikotearekin daudela (% 75,5 eta % 79,5, hurrenez hurren); ez, ordea, emakume gazteak: gazteen taldean gehienak (% 85,1) ezkongabeak eta bikotegabeak dira. Are gehiago, ikerketa honetan, bikote gabe dauden hamar emakumeetatik zazpi 30 urte edo gutxiagoko taldean daude. Hortaz, esan genezake, gure testuinguruan, egoera zibil batetik besterako bidea edo pasatzea (hau da, bakarria izatetik bikotearekin bizitzera) hogeita hamar urte inguru dituztela egiten dutela emakumeek.

4.2. GRAFIKOA Egoera zibila. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak.



Illo honetan bertan interpreta daitezke 4.2. taulako emaitzak ere. Egoera zibilar buruz informazio osagarria ematen digute taula honetako emaitzek ere, baina gure kasurako informazio garrantzitsuagoa da hau, gaur egun 18 eta 64 urte arteko euskal emakumeek zer familia- edo elkarbizitza-eredu duten jakiten laguntzen digulako. Aurreneko adierazleak erakusten du multzo honetako emakume guztien % 95,4 kide bat baino gehiagoko elkarbizitza-unitateetan bizi direla, batez beste, 3 lagunekoa; emakume guztietatik soilik % 4,6 bizi dira bakarrik, gehienak 46-64 urte bitartekoen artean.

4.2. taulari bestelako ikuspegi batetik begiratzuz gero ikusiko dugu, besteak beste, emakumeak 30 urte inguru dituztela joaten direla etxetik, eta joan, beste norbaitekin joaten direla, ez beren gisan. Izan ere, 18 eta 30 urte bitarteko emakume gehienak (% 71) gurasoen etxean bizi dira eta ez dirudi, gurean behintzat, bakarrik bizitzearen aldeko aukera gailen-

tzen denik, egonkortasun handia edo eskasa izanda ere. Eta arrazoi pragmatiko edo ekonomikoak –bi soldatak behar izatea– ez dira falta joera honetan (EMAKUNDE, 2007:30).

Umeak edukitzeko eran ere nabari da euskal emakumeen joera batez beste hogeita hamar urte dituztela joateko etxetik: 18 eta 30 urte bitarteko emakumeen artean, % 6,7k beste-rik ez dute umeren bat (1,3 ume batez beste); eta, aldiz, 31 eta 45 urte bitartekoen artean proportzioa askoz altuagoa da: % 74,4 (batez beste 1,8 ume). Dena lotuta dago, nonbait. Datu hauen argitan ikusten denez, etxean gurasoekin bizi izatetik beste etxe batean bikotearekin eta batzuetan semearekin edo alabarekin bizi izatera pasatzen dira emakumeak.

4.2 TAULA Elkarbizitzeko erak eta familia-unitatearen osaera. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak.

ELKARBIZITZEKO ERAK	18 - 30 URTE BITARTEKOAK	31 - 45 URTE BITARTEKOAK	46 - 64 URTE BITARTEKOAK	GUZTIRA
Bakarrik	2,2	4,3	6,6	4,6
Bikotearekin	9,6	8,0	27,4	15,8
Bikotearekin eta seme-alabekin	3,8	62,4	49,0	42,1
Seme-alabekin	0,5	5,2	6,4	4,4
Amarekin/aitarekin (gurasoenean)	71,0	11,7	2,8	23,7
Norbera, eta gurasoren bat etxean hartuta	7,0	5,2	5,9	5,9
Bestelakoak (beste era batzuk)	6,0	3,1	2,0	3,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Etxean bizi direnen kopurua, batez beste	3,3	3,4	2,9	3,2
% emakumeak, seme-alabekin	6,7	74,4	89,8	62,7
Seme-alabak, batez beste	1,3	1,8	2,0	1,9
Seme-alaben adina, batez beste	4,2	9,1	27,3	19,5

LAN-MERKATUKO ESPERIENTZIA

4.4


Badakigu jakin gizartea eta banakoa (bere bizi-ibilbidea) egituratzeko moduan gertatzen dela generoaren ondoriozko ezberdintasun nagusietako bat. Hau da: gizona/lana versus emakumea/etxea eta familia banatzea. Aurkatze hori giltzarria dugu gizartean, eta gure ikerketa honetarako interesgarria da argitara ekartzea 18 eta 64 urte bitarteko adina daukaten emakumeengan ba ote dagoen lan-esperientzia jakinen bat bereizkeria horren arrazoa azaltzeko modukoa.

4.3. grafikoaren emaitzek datu oso-oso interesgarria adierazten dute: 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen hamarretik ia bederatzik (% 88,8) egin du lan inoiz. Segmentuen arteko diferentziak adinagatik eta gizarteratze-prozesuengatik sortzen dira. Emakume gazteen kasuan, aipatutako aldagai edukatiboari lotuta, beren bizi-ibilbidea oraindik ere lan-merkatura iritsi aurreko prestakuntza-prozesuen baldintzapean dago, bai eta, hezkuntza-aldia bukatu ondoren, lanean hasi orduko sortzen diren zailtasunen baldintzapean ere. Horrexegatik dauzka adin-talde horrek emaitza baxuenak termino erlatiboetan (ia % 78) lan-arloko esperientzian.

46 eta 64 urte bitarteko emakumeen kasuan, alderantziz, lan-merkatuan jardun ez izanak adierazten du beren sozializazio-prozesuan logika nagusia zera zela, beren generoagatik etxeari eta familiari lotuta egon beharra, etxetik kanpoko lanetik urrun –etxeko andreak izan dira erabat– .

Alderantziz, 31 eta 45 urte bitarteko emakumeen taldean (1967-1981 bitartean jaiotakoak), lan-merkatuan egoteko nahia agerikoa da, nabarmena; oso-oso gutxi izan dira inoiz etxetik kanpo lanik egin ez dutenak (% 3,1).

4.3. GRAFIKOA Laneko esperientzia. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak.




LANA GAUR EGUN

4.5

Lana egiteaz ari garela, ezin dugu jakiteke geratu gaur egun zertan den emakumeon lan-egoera, beren lana kalitate onekoa ala txarrekoa den eta zer-nolakoa den. Beste atal batzuk dauzkagu berez enpleguaren bereizgarrietarako utzita, baina honako honetan ere aipamentuoa egin nahi genioke Euskadiko 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen aktibitateari (galdetegia egin zen garaian, 2012ko ekain-uztailean).

4.4. grafikoak 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen gaur egungo lan-egoeraren berri ematen du, orotara. Bi emakumetik ia bat (% 46,9) "lanean" dago (bai norbaiten kontura edo bai kontura): ia % 21 "etxeko lanetan" jarduten da; % 16,4 "langabezian"; % 10,5 "ikasten" eta, azkenik, % 5,4 "bestelako egoeraren batean" (erretiroa, aurre-erretiroa, amatasun-baimena hartuta, eszedentzian, lanerako ezintasunen bat dutela, elbarri edo laneko baja hartuta, nagusiki).

4.4. GRAFIKOA Aktibitatea. Guztira eta ehunekoak.




Alabaina, 18 eta 64 urte bitarteko emakume guztien argazki global hori ez da behar bezain argia, engainagarri samarra da, adinak dakartzan ezberdintasunak alde batera uzteko; ezberdintasun horiek erakusten dute-eta nola adinak bizitzako ibilbide ezberdinak eragin dituen, generoaren arabera sozializazio-prozesuek gidatuta.


Hala, 4.5. grafikoak erakusten du etxeko lanetan jarduten diren lau emakumeetatik ia hiru 46 eta 64 urte bitarteko taldekoak direla (% 73,9); ikasten ari diren emakume guztien % 97, zehazki, 18 eta 30 urte bitartekoak direla; eta lanean dabiltzan (okupatuak) zein lana egin nahi luketen (langabeen) gehienak 31 eta 45 urte artekoak direla (totalaren % 44 eta % 46, hurrenez hurren).

Edonola ere, egokia dirudi horri buruzko informazio gehiago ematea hurrengo hiru grafikoetan, ikusteko zein den hiru adin-talde horietako bakoitzaren erlazioa aktibitatearekiko. Gazteenen taldean (18 eta 30 urte) ia kopuru berdina dago lanean edo ikasten. Erdi bana daude banatuta, halaber, 46 eta 64 urte arteko emakumeak, baina, kasu honetan, lanean edo etxeko lanetan banatuta, erdi eta erdi. Azkenik, 31 eta 45 urte artekoen taldeari dagokionez, gehienak lan-merkatuan daude (% 57,6); eta beste asko langabezian (% 21).


4.5. GRAFIKOA Aktibitatearen banaketa, adin-taldeen arabera. Ehunekoak.




4.6. GRAFIKOA Aktibitatea. 18 eta 30 urte bitartekoak. Ehunekoak.



4.7. GRAFIKOA Aktibitatea. 31 eta 45 urte bitartekoak. Ehunekoak.



4.8. GRAFIKOA Aktibitatea. 46 eta 64 urte bitartekoak. Ehunekoak.



5

NORBANAKOAREN AUTONOMIA: LEHENTASUN NAGUSIA, ETA BALIO ERROTUA

Kapitulu hau azterlan honetako garrantzitsuenetarikoa da, edo kapitulu nagusia behintzat. Izan ere, kapitulu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen ahalduntze-prozesuaren egoera identifikatzeko elementurik erkideenak batzen dira, emakumeek eurek erabakiak hartzeko garaian duten autonomia indibidualari dagokionez.

Hortaz, kapitulu honen gai nagusia autonomia da, hau da, ahalduntzearen maila indibiduala, zeren maila hori oinarria edo plataforma baita prozesu zabalago eta sendotuagoa osatzeko.

Azalpenari ekin baino lehen, berriz diogu ikerketa honen argudioak gehiengoaren iritziak azpimarratzen dituela. Horrek ez du esan nahi kuantitatiboki gutxiengoan dauden joerak baztertu behar direnik edo ezarritako hiru adin taldeen adierazleen desberdintasunak alboratu. Dena den, argi uzten saiatuko garenez, ikerketa honen "aurkikuntza" nagusietako bat hiru emakume belaunaldi horien arteko adostasun handia egiaztatzea izan da; adostasun hori egungo egoerari eta ahalduntzearen ikuspegi indibidualaren ikuspegiaren ibilbideari buruzkoa da, eta gure ustez, zeharkakotasun horrek adierazten du eragile informal eta formalak neurri batean edo bestean ari direla inplikatzeko aldaketa sozialeko prozesua errotu dadin.

EMAKUMEEN LEHENTASUNAK


5.1

5.1. grafikoaren emaitzak kontuan izanda ez dago zalantza izpirik: "norbanakoaren bizitzan eragina duten gauzei buruzko erabakiak hartzeko autonomia edukitzea" da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek lehenesten duten egitatea, eguneroko bizitzan eragina duten hamaika konturen artean.

"EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana" delakoaren arabera, ahalduntzea "pertsonek euren bizitzan eragina duten baliabideen eta erabakien gainean duten agintea eta boterea handitzea" (Emakunde, 2010:80) da. Emakumeen euren iritzi horiek kontuan izaki esan daiteke norbanakoek erabakiak hartzeko garaian duten autonomia egun "balio errotua" dela.

Ondorengo ataletan, azterlanaren emaitza den ideia hori garatzen saiatuko gara, baina lehenengo eta behin komenigarria da 5.1. grafikoaren emaitzak banakatzea, zeren neurri handi batean txostenean zelan edo nola garatuko diren konturik gehienak azalarazten dituzte, eta gainera, egungo emakumeen lehentasunen hierarkiaren argazkia dira.

5.1. GRAFIKOA Egungo lehentasunak emakumeen bizitzan. Adin taldeka eta guztira. 0-10 eskala.



18 eta 64 urte bitarteko emakumeei eguneroko hainbat kontu azaldu zaizkie, zer-nolako garrantzia duten euren bizitzetan jakiteko, eta ez dira erantzun oso desberdinak jaso hezkuntza mailen, familia-elkarbizitza motaren, seme-alabak edukitzearen, lan esperientziaren, lan-egoerarekiko harremanen edo emakumeak berak diru-sarrerak ekartzearen arabera, salbu eta, ikus daitekeenez, hiru lan kontuei buruzko galderak direnean, adin taldearen arabera. Interpretazioak gorabehera, erantzunen homogenotasun horrek interes, ardura eta bizi-itxaropen patroia adierazten du 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen artean. Izatez, aldaera anitzeko azterlanak (korrespondentzia sinpleen azterlanak eta osagai nagusien faktore azterlana) egin dira, eta uniformetasuna indartzen dute.

Esan bezala, adin eremu horretan, EAEko emakumeei interesatzen zaizkien lehentasunetan belaunaldien arteko zeharkakotasun hori bizitzan eragina duten edo berori osatzen duten ekintzen balio nagusi legez definitzen da: erabakiak hartzeko autonomia lortzea (MASA, 2000:157). Autonomiari horrelako balioa ematearen ondorioz, "norberak diru-sarrerak izatea" sine qua non baldintza da erabakiak hartzeko norberaren autonomiaren irizpidea errazago edo gaitzago praktikan jartzeko.

Eguneroko lehentasunen hierarkia horren hirugarren tokian hurbileko familia kideekin egoteko "denbora gehiago izateko aukera" rekin edo norberarentzako denbora gehiago (norberaren denbora) izateko aukerarekin –kasu bietan, seme-alabak dituzten emakumeen kasuan egoera nabarmenagoa da– eta etengabeko prestakuntzarako aukerarekin loturiko lehentasun taldea dugu.

Lehen esan bezala, lehentasun hierarkiaren desberdintasun nagusiak "enpleguarekin" zuzenean lotutako hiru kontuetan azaltzen dira. Bistakoa denez, adinak eta ondorioz, lan-

egoerarekiko harremanek azaltzen dituzte desberdintasun horiek. Alde batetik, talderik gazteenak, 18 eta 30 urte bitartekoen taldeak, garrantzi handiagoa ematen dio enplegua lortzeari, edo enplegu horrek, lorturik edo ez, jasotako prestakuntzarekin ahalik eta lotura handiena izateari, hori ere egungo lan baldintzak hobetzea baita.

Egun lehentasun hori, adin taldea kontuan hartu barik, areagotzen da langabezia dauden edo ikasten ari diren edo etxebizitza-emantzipazioa lortu gabe (familia etxean bizi dira) dauden emakumeen artean.

Hala ere, eta azkenik, "enpleguarekin loturiko kontu horiek nabarmen garrantzi txikiagoa dute 46 eta 64 urte bitarteko emakumeen artean, seguru asko uste baita lan egoera egonkorra –erlatiboki– dela, bai etxetik kanpoko lan batean edo etxeko lanetan.

Amaitzeko, 5.1. grafikoari esker azaltzen diren beste bi kontu ondokoak dira: lehenengoa, emakumeak "egungo bizimoduarekin" pozik-edo omen daude. Nahiz eta konformismoa dela edo gizarte ongizate edo bizi kalitate ona dela interpreta daitekeen, emakumeen eguneroko bizitza antolatzekeo egitura batzuk omen daude, usadio eta aukera batzuk, familia elkarbizitzako, etxeko eta gizarteko mailetan, eta badirudi pozik–edo daudela emakumeak. Izan ere, egitura horiek "jakintzat ematen dira" (SCHÜTZ; 1992) esplizituki bainoago implizituki. Antza, enplegua lortzeko baldintzak hobetuz eta astialdia handituz sendotu dira.


5.1. grafikoan azaltzen zaigun bigarren kontu interesgarria ondokoa da: "kultura, elkarte eta boluntariotza jardueretan parte hartzeko denbora gehiago" edukitzeko helburua azken postuan dago. Haatik, 46-64 adin tarteko taldeak interes apur bat handiagoa erakusten du gai horiei dagokienez. Hemen argi ikusten da helduaroan norbanakoaren ibilbide biografiakoa (enplegua, emantzipazioa, familia bizikidetzak) garatzea eta sendotzea lehentasuna dela eta lehentasun hori egonkortu denean zelan edo hala, norbanakoen zirkulu zentraletik hain hurbil ez dauden eguneroko bizitzaren bestelako errealitate batzuk indartu egiten dira.

**EMAKUMEEN
AUTONOMIA
AREAGOTZEA:
BELAUNALDIEN
ARTEKO KONPARAZIOA**

5.2

Ikerketa honen beste adierazle garrantzitsuenetako bat 5.2. grafikoan adierazten da. Adostasun handia dago EAEn bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen artean antzematen dutenean autonomia handiagoa dutela erabakiak hartzeko garaian aurreko belaunaldietakoek baino.

5.2. GRAFIKOA "Nire adineko (belaunaldiko) emakumeek autonomia handiagoa dugu gugan eragina duten erabakiak hartzeko garaian aurreko belaunaldietakoek (amak, amonak) baino. Adin taldeak eta guztizkoa. Ehunekoak.




Iritzi horren zeharkakotasuna handia da adin talde guztietan, eta gero eta handiagoa da. Belaunaldi guztien aburuz, erabakiak hartzeko garaian euren egungo autonomia handiagoa da aurreko belaunaldiena baino. Eta hazkunde hori da emakumeen artean balio horren sendotasunaren oinarri nagusietako bat, emakumeek eurek, euren eta amen eta amonen egoerarekin konparatuta, uste baitute, zailtasunak egon arren, erabakiak hartzeko autonomiak hobera egin duela.

**EREMU GUZTIETAN
EGOTEKO AUKERA
HANDITZEA**

5.3

5.3. grafikoari esker ikus daiteke erabakiak hartzeko autonomiaren balioa edukiz beteta dagoela eta egungo emakumeek aurreko belaunaldietakoek baino autonomia handiagoa dutela. Gauzak horrela, 18 eta 64 urte bitarteko hamar emakumetik zortzik baino gehiagok (% 81,5) uste du emakumeek "gero eta aukera gehiago dutela gizarteko eremu guztietan presentzia izateko".

5.3. GRAFIKOA "Emakumeek gero eta aukera gehiago dugu bizitzako eremu guztietan (jendartean, politikan, lan munduan, kulturean, aisialdian, prestakuntzan, etab.) presentzia izateko". Adin taldeak eta guztizkoa. Ehunekoak.




Emakume gazteenen taldea (18 eta 30 urte bitartekoa) da aukera handiena antzematen duena (% 88). Emaitza hori izan daiteke belaunaldi gazteagoek erabakiak hartzeko autonomia handiagoa duten sententziaren ondorio logikoa. Halaber, pentsa liteke emakume gazteenek idealismo handiagoa dutela, noiz eta helduarorako trantsizio prozesuak –etxetik joatea, enplegua lortzea eta berorren kalitatea– martxan jarri ez direnean. Izan ere, 31 eta 45 urte bitarteko emakumeen taldeko belaunaldia gaur egun helduaro prozesu horiek sendotze aldera ari da borrokan, beraz, talde horretan ehuneko txikiena (% 77,2) ematen da jendartearen eremu guztietan emakumeek presentzia edukitzeko aukerak handitzearen gaineko ikuskerari dagokionez.

**GENEROAK
BERDINTZEKO
BIDEAN, ERABAKIAK
HARTZEKO AUTONOMIA
MAILARI DAGOKIONEZ**

5.4

Agerrarazten ari diren ondorioen harira, 5.4. grafikoan adierazten da EAEn bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko hamar emakumetik zazpi (% 69,5) uste duela bizitzan erabakiak hartzeko autonomia garatzeko baldintzak ez direla orain generoaren araberrakoak.

5.4. GRAFIKOA "Bizitzan erabakiak hartzeko autonomia handiagoa edo txikiagoa izatea ez da emakumea edo gizona izatearen araberakoa". Adin-taldeka eta guztira. Ehunekoak.



Berriz ere, interesgarria da azpimarratzea adin taldearen arabera desberdintasun batzuk antzematen direla; eta desberdintasun horiek lehen adierazitako planteamendu batean mantentzen dira, honatx: emakume gazteenen (18 eta 30 urte bitartekoak) taldea (% 74,1) da generoen arteko berdintasun maila handiena antzematen duena, erabakiak hartzeko autonomiari dagokionez; 31 eta 45 urte bitarteko emakumeen taldeak, ordea, uste du berdintasun hori txikiagoa dela modu erlatiboan (% 65,2). Interpretazio hipotesi legez, gure ustez, adina da garrantzitsua, 31 eta 45 urte bitarteko emakumeen % 35,2ren aburuz, baldintza objektibo kaskarragoak dituztela adin bereko gizonek baino aitortzeko. Ondorioak ikusita, gainera, esan dezakegu enplegua, seme-alabak eta goi mailako ikasketak dituzten adin horretako emakumeak direla argien adierazten dutenak "berdintasunaren diskurtsoak" talka egiten duela lan, etxe edo familiako esperientzia praktikoekin.

**EMAKUMEENGANAKO
BEREIZKERIA
MANTENTZEN DA,
BAINA GAINBEHERA DOA**


5.5

18 eta 64 urte bitarteko emakumeek aukera handiagoak izatea formalki gizarteko eremuetatik bazterturik ez egoteko, norbanakoek erabakiak hartzeko garaian genero desberdintasuna zelan edo hala gainditu izana, eta bereziki, belaunaldien arteko konparazioan, emakume talde horrek autonomia irabazi duen sententzia ez dira arrazoi nahikoa emakumeek eguneroko bizitzan emakumeenganako bereizkeria desagertu denik esateko.

5.5. grafikoaren ondorioak modu askotara irakur daitezke. Txosten honetako interpretazioari eusten badiogu, bistakoa da EAEn bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko hamar emakumetarik ia zortzik (% 79,2) dioela egun emakumeak bazterturik daudela. Emakumeenganako bereizkeria egoerari buruzko iritzi hori erantzun birekin osatu behar da, ñabardura oso desberdinekin: Batetik, emakumerik gehienak, % 64k, bereizkeria egoerak mantentzen direla onartzen du, baina atzera begira jarrita egoera horiek arindu edo pixkanaka-pixkanaka ari direla desagertzen onartzen dute. Bestetik, gainerako % 15,2k, ordea, uste du desberdintasun egoerak mantentzen direla; beraz, ez dela aldaketarik gertatu.

Kontuan hartzen badugu gehienek uste dutela genero-berdintasunean "aurrera" egiten ari dela, txosten honen ideiarik gehituko litzaioke, non agertzen baita EAEn bizi diren emakume heldurik gehienek uste dutela gizarte aldaketaren aktore aktiboak garela eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gutxitzen ari direla, eta horren ondorioz, erabakiak hartzeko autonomia sendotzen ari dela.

5.5. GRAFIKOA Emakumeenganako bereizkeria gaur egun. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.




Apika, egun genero-berdintasuna sendotzen ari den ideiarik adierazpenik muturrenekoa gaur egun bazterturik ez direla sentitzen uste duen emakumeen % 20,8 da. 5.6. grafikoak batzen ditu emakume talde horrek emandako arrazoiak. Eta hiru adin taldeetan argi antzeman daitezkeen arrazoiak "eguneroko ikuskerara" batera garamatza, zeren pertsona moduan edo euren eguneroko hurbileko inguruan ez dute bereizkeria jasan edo bizitzen (% 71,6).

Egunerokotasunean emakumeenganako bereizkeria antzematen ez duen talde horrek emakumeen errealitatea interpretatzeko eredu horren arabera, "kasu bakanak" dira bereizkeria kasuak, lan-eremuan batez ere (% 8,4). Logikoki, ordea, bizimoduan bereizkeria an-

tzematen duten 18 eta 45 urte bitarteko emakumeek (% 79,2) errealitateari buruz egiten duten interpretazioa guztiz bestelakoa da. "Araua –eta, horregatik, "anomiko"tzat hartzen dena– ez da berdintasuna, baizik eta berdintasun eza, beraz, kasu honetan, lan-eremuan ematen diren bereizkeriak ez dira "kasu bakanak", baizik eta egun emakumeenganako bereizkeria egoeren mantentzea sortzen duen "gako nagusia".

5.6. GRAFIKOA Gaur egun ez dago emakumeenganako bereizkeriarik. Arrazoiak. Adin taldeak eta guztira. Ehunekoak.




5.7. grafikoak "lan-eremuan" ardaizten ditu gaur egun emakumeek pairatzen dituzten bereizkeria egoerak. Hiru emakumetik batek (% 32,9) halaxe dio, eta iritzi hori zabalduago dago gazteenen taldean (18 eta 30 urte bitartekoa). Hurrengo kapituluan lan eremuan gauzatzen ari diren emakumeenganako desberdintasun egoerak sakonduko dira, zeren argi dago desberdintasun foku nagusia dela; beraz, bertan benetako berdintasuna lortzeko estrategiak indartu behar dira.

Aurrera egin dela edo ez dela, emakumea oraindik bazterturik dagoela uste duten EAEko hamar emakumetik zortzik emandako bigarren arrazoa "matxismoa" mantentzea da (% 24,1). Nolabait, gure ustez, jendartean bizitza ulertu eta egituratzeko formak blaitzen dituen matxismoaren kultura azpimarratzen duten erantzunetara ondokoak batzen dira: lan

munduko bereizkeria, (% 32,9), "emakumea etxearen eta familiaren arduradun gisa" (% 9,7), "emakumeen kontrako bortizkeria" egoerak (% 3,2) eta "emakumea objektu sexual gisa" (% 0,5).

5.7. GRAFIKOA Gaur egun emakumeenganako bereizkeria badago. Arrazoiak. Adin taldeak eta guztira. Ehunekoak.



Atal hau amaitzeko, nahiz eta emakumeenganako bereizkeriaren egungo egoerari buruzko jarrerak grosso modo hiru adin taldeetan homogenotasun larria markatzen duten, zenbait ñabardura hartu behar dira kontuan momentu honetan eta etorkizunean gaia sakontzeko. Horri lotuta, egitate azpimarragarrienetarikoa EAEn bizi diren 18 eta 30 urte bitartekoek, gazteenek, duten irudia da, hots, berdintasun handiagoa –edo emakumeenganako bazterkeria txikiagoa–. 1982tik 1994ra jaiotako emakumeen belaunaldi horretan bereizkeria ezaren eta bereizkeria "gero eta txikiagoa"ren ehunekorik handienak ematen dira (5.5. grafikoak. % 23,7 eta % 65,7, hurrenez hurren) eta beraz, bereizkeriaren sentsazioko ehunekorik txikerrena (% 10,6) esangura hertsian. Orain arte azaldutako ondorioak kontuan hartzen baditugu, emakumerik gazteenen jarrera horrek indartzen du lehen aipatutako ideia, hau da, emakume belaunaldi horretan "berdintasunaren diskurtsoa" gehiago sendotu dela.

AUTONOMIAREN ESPERIENTZIA PERTSONALAK

5.6

Behin emakumeek ahalduz prozesua osatzen duten osagai garrantzitsuenetako batzuen egungo egoeraz duten iritzia aipatuta, komenigarria da talde horien genero adierazleak osatzea norbanakoen adierazleekin, EAEn bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen bizitzan eragina dutenekin.


Mailak, kolektiboa eta pertsonala, erkatzeak oinarritzko helburua du, honatx: ikustea emakume multzoak autonomiaz dituen jarrerak bat datozen norbanakoen jarrerekin. Edo bestela esanda, emakumeek genero ahalduzaren egoeraz dituzten iritzia esperientzia pertsonaletatik sortzen diren ikustea.

Bizitzan eragina duten zenbait eremutan norbanakoak bere autonomia gaitasunaz duen ikuskerarekin lotutako galderen erantzuna erlatibizatu arren, zeren inori ez baitzaio gustatzen autokritikoa izatea ibilbide biografikoa gobernatzeko duen moduarekin, 5.8. grafikoak, orokorrean, autonomia maila handia erakusten du EAEn 18 eta 64 urte bitarteko emakume bakoitzaren eguneroko bizitza pertsonalaren zazpi alderditan.

1948tik 1994ra jaiotako EAeko emakumeen aburuz, erabakiak hartzeko autonomia –irizpide edo balio nagusi gisa errotua– gauzatu ohi da maila desberdinetan, alegia, bizitza pertsonalean, esaterako, adiskide edo harreman berriak eduki edo egitean, euren iritzia azaltzean, bikote harremanetan, dirua kudeatzean, beste pertsona batzuk (senideak) zaintzean, denbora kudeatzean edo lan-egoerarekin dituen harremanak mantendu edo aldatzean.

Hauze izango litzateke autonomiaren hurrenkera hierarkikoa, handitik txikira, emakumeen aburuz; logikoki ñabardura batzuk egin behar dira adinaren edo bizialdiaren arabera. Dena den, ikerketa honetan ezarritako hiru emakume belaunaldiek iritzi bera dute erabakiak hartzeko autonomiaz, indibidualtasunaren adierazpenetik hurbilen dauden hiru alderdietan, alegia: adiskide edo harreman berriak eduki edo egitean (% 97,5), euren iritzia azaltzean (% 93,8), eta bikote harremanetan (% 93,4). Indibidualtasun propioaren defentsa, hau da, besteen iritzien menpe ez egotea, batez ere bizikidetzan hurbilen dauden pertsonen iritzien menpe ez egotea, azterlan honen emaitzetan errotuta ageri den ideia argia da, eta belaunaldi guztietan dago.

5.8. GRAFIKOA Pertsona/emakume autonomoek zelan ikusten duten euren burua erabakiak hartzeko garaian, eguneroko eremuen arabera Adin taldeak eta guztizkoa. Baiezko erantzunak. Ehunekoak.



Nahiz eta estatistikoki gutxi izan adiskidantza eta bikote harremanetan edo iritziak plaza-ratzean autonomia gutxitua sentitu dutenak, kasu horietan arazoa ez da genero maskulinoaren inposizioa edo egitura patriarkalarena, baizik eta zailtasun pertsonalak (adiskidantza harremanak egiteko interesik eza edota horretarako trebetasun gutxi) edo testuinguru arazoak; izan ere, kasu horretan arazoa arrazoi politikoekin dago lotuta, ondoren azaltzen den bezala.

Eta norbanakoaren autonomiaren balioa hain dago errotua, ezen galdetegiari emandako ezezko erantzunetan ere –"baliteke" edo "ez"– ikus baitaiteke emakumeek eurek uste dutela kontuan hartu behar direla bizikideen edo emakumeen hurbileko pertsonen (bikotekidea/ezkontidea, familia, lagunak) iritziak.

Norbanakoaren autonomiaren inguruan 5.8. grafikoa agertutako beste elementu interesgarri bat dirua kudeatzeko garaian antzemandako autonomia mailari dagokiona da, eta txosten honetan atal berezia dedikatuko zaio. Izan ere, atal horretan, 18-30 urte bitarteko taldean –famiaren etxean bizi dira (etxebizitzatik emantzipatzeko prozesua hasi gabe) eta ez dute diru-sarrerarik– izan ezik, "baliteke" eta "ez" erantzunek iradokitzen dute bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonak adostasunez eta modu konpartituan hartzen dituztela erabakiak, ezer inposatu gabe eta iritzi guztiak errespetatuz.


Halaber, interesgarria da ikustea 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek uste dutela (% 89) autonomia handia dutela beste pertsona batzuk zaintzeari buruzko erabakiak hartzeko garaian. Are gehiago, baietz erantzuten ez duten gainerako emakumeetatik (% 11) gehie-

nek ez dute nahi zaintza ezabatu edo arindu, baizik eta denbora gehiago, zaintzarako edo senideak zaintzeko, batez ere seme-alabak dituzten eta lanean ari diren 31 eta 45 urte bitarteko emakumeen kasuan.

Bi eguneroko eremutan ikusten dute EAEko 18 eta 36 urte bitarteko emakumeek autonomia txikiagoa dutela. Alde batetik, eta argiago, egungo lan-egoerarekin lotutako egoeran (% 76,9), zalantzarik gabe, pertsonak, emakumeek, landunek batez ere, erabakitzearen kontrol edo gaitasunetik kanpoko elementuz josita dago; eta ez horrenbeste ikasten edo etxeko lanetan ari direnen egoeran. Lan-eremuari kapitulu berezia eskainiko diogu, norbanakoen erabakimena mugatzeko duen gaitasuna kontuan izanda.

Eta beste eremua "norberaren denbora kudeatzeari" dagokio, guztiaren % 85,1, baina desberdintasunak handiak dira adin-taldearen arabera eta emakumearen bizialdiaren arabera. Hortaz, norberaren denbora kudeatzeko autonomia maila hamarretik ia bederatzi puntu bada gazteenen taldean (18-30) eta nagusiagoen taldean (46-64), % 89,4 eta % 87,8 hurrenez hurren, tarteko taldean, ordea, 31 eta 45 urte bitarteko emakumeen taldean, hamar puntu gutxiagokoa (% 79) da. 5.9. grafikoan ikus daitezkeen bezala, galdera horri baietz erantzuten ez dioten ("baliteke" eta "ez") emakumeak % 15 dira, eta norberaren denbora kudeatzeko autonomia gutxiago izatearen sentsazio hori egun "lanaldi bikoitza" izenekoa duten emakumeen artean igartzen da gehien: lanean ari denean, okupatu gabeko denboraz baliatzeko ordutegi eskasa eta, aldi berean, seme-alabak zaintzeko erantzukizunekin.

5.9. GRAFIKOA Norberaren denbora kudeatzeko autonomia (zer egin nahi duen erabaki hala izatea). Adin taldeka eta guztira. Baiezkoak ez diren erantzunak ("ez" eta "baliteke"). Ehunekoak.



BEREIZKERIA ESPERIENTZIA PERTSONALAK


5.7

Galdetegian, EAEn bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeei zuzenean galdetzen zieten ea jasan dituzten bereizkeria egoerak. 5.10. grafikoan, alde batetik ikus daitekeenez, ia emakume bitik bat (% 47,4) sentitu da bazterturik behin gutxienez, eta gainerakoak (% 52,6) inoiz ez da bazterturik sentitu orain arte.

Behin gutxienez bazterturik sentitu diren emakumeei (% 47,4) galdetu zieten bereizkeria mota horri buruz. Emakumeek erantzun bat baino gehiago eman dezakete jasandako bereizkeria motari buruz, eta 5.11. grafikoan ikus daitekeenez, bi bereizkeria mota dira nagusi: "norberaren iritzi politiko-ideologikoak" adieraztearekin eta esangura hertsian "genero" bazterkeriarekin lotutakoak.

Azken mota horretan jarriko dugu arreta, ahaztu barik emakumeek beste hirugarren bereizkeria mota bat jasaten dutela, "sexuarekin" lotutakoa; lehen adierazitako % 47,4ren artean, EAeko 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen % 28,8k jasan du generoagatiko bereizkeria, eta eragin handiagoa du 31-45 urte bitarteko adin taldean (% 33,7).

5.10. GRAFIKOA Bereizkeria esperientzia pertsonalak. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.




Bi aldagaiok lagun diezagukete hiru adin taldeen arteko desberdintasun txikiak eta ondorioz, guztizko emaitzak eta lorturiko bereizkeria motak ulertzen. Lehenengoa loturik egongo litzateke emakumeek "bizitzan" daukaten kokapenarekin; bizitako esperientziak gehiago dira, eta beraz, bereizkeria jasateko aukera handiagoa. Bigarren aldaera lotuta egongo litzateke norberak "baztertuta sentitzeko duen kontzientziarekin", hau da, emakumeek baz-

tertua izan den kontzientea izateko, bereizkeriaren alderdiak ezagutu behar ditu, edo zertan gauzaten den bereizkeria.


Emaitzak ikusita, badirudi bigarren aldagai horrek gehiago azaltzen duela; zeren adinduenak –46-64 urte bitartekoak– esperientzia gehien metatu dutenak, bereizkeria egoera gutxien adierazten dutenak baitira, baita mota eta formei dagokienez ere. Haatik, gazteenen bi taldeetan, bereizkeria esperientzia pertsonalak behin gutxienez gertatu direla diotenak gehiago dira, bereizkeria ezaren esperientzien parean (% 49,2, 18-30 urte bitarteko taldean eta % 51, 31-45 urte bitarteko taldean). Norbanakoen autonomiaren balioa 45 urtetik beherako emakumeen taldean sustraituago dago; beraz, kontzientzia handiagoa da bereizkeria orokorreko egoeren eta bereziki, genero bereizkeriagatiko egoeren aurrean.

5.11. GRAFIKOA Bereizkeria esperientzia pertsonalak. Adin taldeka eta guztira. Erantzun anitza. Ehunekoak.



5.12. grafikoari esker, nolabait, kapitulu hau amai daiteke, bereizkeriaren gaineko iritzi orokorrak eta bizipen pertsonalak bateratuz. Eta argi geratzen da iritzi kolektiboa esperientzia pertsonaletan eraikitzen dela. Gure kasuan, bereizkeria esperientzia pertsonalek emakumeen bereizkeriaren ehunekoak handitzen dituzte, eta alderantziz, bereizkeria orokorreko ehuneko txikienak 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen artean ematen dira. Hala ere, esperientzia pertsonalak gorabehera, "aurrerapenak" egin diren arren, emakumeen bereizkeria gure eguneroko bizitzan mantentzen da.

5.12. GRAFIKOA Emakumearenganako bereizkeria gaur egun eta bereizkeria esperientzia pertsonalak, adin taldeka eta guztira. Erantzun anitza. Ehunekoak.



6

LANAREN PARADOXAK: AUTONOMIA ITURRI, DESBERDINTASUN ITURRI

Arestian ere esan dugu lan-arloan aurkitzen dituztela, 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek berek, diskriminazioaren aldetik praktika ohiko eta nabari nagusiak. Baina aldi berean, lanean hedatu dezakete eta lanean hedatu nahi dute, emakumeek, autonomia indibidualaren balioa bere dimentsio guztietan.

Kapitulu honen asmoa da euskal emakume helduek bizi duten lan-arloaren izaera paradokiko bikoitz hori erakustea. Lehenengo eta behin, lan-munduan izateak emakumeei ematen dieten potentzialitatea areagotzen duten alderdiak erakutsiko ditugu, edo, nahiago bada, "enplegua izateak" duen genero- eta gizarte-esanahia, izan ere, autonomia eskuratzeari eta erabaki propioak hartzeko gaitasunari dagokionez, diferentzia, horrexek eragiten baitu. Kapituluaren bigarren zatian, ostera, emakume talde horrek zuzenean bizi dituen genero-desberdintasuneko ekintzei eta esperientziei erreparatuko diegu.

Lan-arloan izan nahi horren kostuak eta ondorioak denetarikoak dira, zalantzarik gabe, eta askotan nekez atzeman daitezkeenak azterlan honetan baliatu dugunaren gisako teknika kuantitatibo batekin. Horrek ez du esan nahi ordea, garbi ez dugunik lan-arloa dela 18 eta 64 urte bitarteko emakumeei beren ahalduntze-prozesuen barruan oztoporik zurrunenak jartzen dizkien arloa. Eta horrek eragin zuzena dauka, ahalduntze-prozesuak izango duen ibilbidearen erritmo, izaera eta irismenean, eta ez dimentsio indibidualean bakarrik, baita dimentsio sozial eta politikoaren ere.


**INDEPENDENTZIA
EKONOMIKOA:
AUTONOMIA
INDIBIDUAL
HANDIAGOA
LORTZEKO PALANKA**

6.1

Aurreko kapituluan esan legez, "nork bere diru-sarrerak" izatea bigarren lehentasuna da Euskadin bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeentzat, eta horretan gainera, bat datoz hiru adin-taldeak. Logika horrekin ulertu behar dira 6.1 grafikoko emaitzak ere; hor argi eta garbi geratzen da "independentzia ekonomikoa" zeinen garrantzitsua den hiru belaunaldi desberdinetakoak diren emakume talde horrentzat.

CORIAK (2008:270-271) ondo esan bezala, independentzia ekonomikoa eta autonomia indibiduala ezin dira parekatu, baina antzekotasunak ageri-agerikoak dira. Horrela, haren esanetan, independentzia ekonomikoak baliabideen eskuragarritasunari erreferentzia egiten dion bitartean, autonomia baliabide horiek inoren kontrol edo presiorik gabe erabiltzean datza. Modu autonomoan jokatzek hartutako erabakien erantzukizuna hartzea esan nahi du. Bereizketa hori argi egotea funtsezkoa da, autonomia baita independentzia praktikan jartzearen emaitza. Modu autonomoan jokatzeko, baliabide ekonomikoak eskura izateaz gain, batez ere baliabide horiek erabiltzeko zilegitasuna duela sentitu behar du emakumeak. Horregatik, independentzia ekonomikoa funtsezko baldintza da, baina ez bakarra. Eta, badirudi 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek oso argi dutela independentzia ekonomikoak aukera ematen duela erabakiak hartzeko autonomiari "palanka" gisa eragiteko, baina ez duela hala izango denik bermatzen, DÍAZ MARTÍNEZek (2004) eta lehenago CORIAK berak (1991) ondorioztatu bezala.

6.1. GRAFIKOA "Independentzia ekonomikoa gure lehentasun nagusietariko bat da". Adin-taldeka eta guztira. Ehunekoak.



Lana tresna gisa hartuta, "enplegua" izatea, –enplegu horren kalitatea eta genero-berdintasunaren aldetiko baldintzak alde batera utzita–, une honetan, autonomia indibiduala errazten duen independentzia ekonomiko hori lortzea ahalbidetzen duen mekanismoa da. 6.1. taulak hierarkikoki antolatzen ditu 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek lan egiteko dituzten (edo lanean zeudenean zituzten) arazoak Erantzun horietan, egun enplegua daukatenak, inoiz izan dutenak (nahiz eta gaur egun etxeko lanetan aritu edo ikasle izan), eta enplegua lortu nahi dutenak (egun lan bila, langabezian daudenak), denak hartzen dira.

Enpleguaren dimentsio instrumental horren pisua, beste dimentsio batzuekin alderatuta (hala nola prestakuntza lortzea, ikastea, harremanak izatea...), handia da; ahalmen ekonomiko handitu nahiak garrantzi handia du, nahiz eta ahalmen hori helburu desberdinetarako izan; besteak beste, bizikidetzaren unitatea mantentzeko (batez ere 31 eta 45 urte bitartekoetan), edo autonomia pertsonal handiagoa lortzeko, inoren mende ez bizitzeko (emakumeen % 18,2).

6.1. TAULA Lanean egoteko arrazoiak gaur eta lehen (orain etxeko lanetan edo ikasle) edo lana bilatzeko arrazoiak (langabezian). Adin-taldeka eta guztira. Ehunekoak.

	18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
... ahalmen ekonomiko handiagoa izateko	36,6	27,7	30,0	31,1
... diru-sarrerak etxea mantentzeko ezinbestekoak direlako	18,9	32,3	29,0	27,3
... autonomia pertsonal handiagoa izateko (inoren mende ez bizitzeko)	19,6	15,6	20,5	18,2
... zer egin nahi duen garbi duelako	7,3	7,4	8,2	7,6
... ikasitakoa erabiltzeko	7,9	6,3	5,8	6,6
... pertsona gisa hori egitea dagokidalako (herritar gisa duen erantzukizuna)	1,3	1,9	3,1	2,0
... harreman eta ikasketarako espazio propioa izateko	0,3	0,0	2,0	0,7
... Besterik (zehaztu)	8,2	8,8	1,4	6,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0


**AHALDUNTZE
EKONOMIKO
FORMALAREN MAILA:
BELAUNALDIEN
ARTEKO ALDEAK**

6.2

Atal honetan Euskadin bizi diren 18 eta 64 urte arteko emakumeentzat independentzia ekonomikoaren lehentasun hori praktikan zenbateraino mamitzen den aztertuko da. Dimentsio ekonomikoa, inolako zalantzarik gabe, biziki garrantzitsua da ahalduntzea lortzeko, eta garbi dugu honako hau DÍAZ MARTÍNEZek (2004 eta 2007) abiarazitako lan-ildoaren zirriborro bat baino ez dela. Atal honetan ahalduntze ekonomikoaren barruan guk "formal" deitutakoan jarriko dugu arreta, eta aztertuko dugu zenbat emakume ekartzen dituzten diru-sarrera propioak bizikidetz-unitatera. Hurrengo atalean adierazle hori osatu egingo da, ahalduntzearen beste dimentsio batekin; hain zuzen ere, bizikidetz-unitatearen diru-sarreraren "benetako" kudeaketa ekonomikoarekin, diru-sarrera horiek emakumeak ekarritakoak izan ala ez.

6.2. grafikoak oso argi erakusten ditu aztergai dugun emakume taldearen barruan, belaualdi batetik bestera dauden aldeak. Horrela bada, gazteenak prestakuntza-garaian daude, gehientsuenak, eta gure gizartean, orain arte bederen, ikasketen eta lanaren arteko muga hain zorrotza izanik, lautik batek baino ez du diru-sarrera propiorik ekartzen bizikidetz-unitatera. Aitzitik, 31 eta 45 urte bitarteko emakumeen artean, ia hirutik bik, dauzkate diru-sarrera propioak (% 63,7), eta, hain zuzen ere, emakume horientzat bizitza-ziklo horretan lan-arloan izateak erabateko lehentasuna dauka. Azkenik, 46 eta 64 urte bitarteko emakumeen artean, erdiak baino gehixeagok dauka diru-sarrera propioak (% 53,1ek). Zangalatraban dagoen belaunaldi bat da, egun osorako etxera eta familiara bideratzen zituen genero-sozializazio batean hezitakoak batetik, eta, lehen azaldutako arrazoiengatik, lan-arloan izateari berebiziko garrantzia ematen dion sozializazio batean hezitakoak, bestetik.

6.2. GRAFIKOA Bizikidetza-unitaterako diru-sarrerak. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak



Nolanahi ere, eta 6.4. taularen interpretazioetan gehiegi sartu gabe, argi geratzen da gure autonomia-erkidegoan nahiko zabaldua dagoela bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak bi iturritatik etortzea, eta horrek, –eta are gehiago garai hauetan– beharraz aparte (EMAKUNDE: 2007:32), erakusten du emakumeak bere diru-sarrera propioak izatea ahalduzko funtzio adierazle dela.

6.2. TAULA Bizikidetza-unitatera diru-sarrerak ekartzen dituzten pertsonak. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak.

	18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
Ezkontidea/bikotekidea	13,7	71,7	78,5	59,2
Inkestatutako emakumea	26,9	63,7	53,1	50,1
Ama	60,4	9,4	4,3	20,7
Aita	63,1	8,7	1,5	20,1
Beste senide batzuk	7,4	4,2	1,6	4,1
Alaba/semea		0,5	5,4	2,2
Senitartekoa ez den beste pertsona bat	1,7	1,9	1,1	1,6
Aitagarreba/amaginarreba	0,7		0,5	0,4

Zalantzarik gabe, diru-sarrera gehienak lanean lortutakoak dira, eta beraz, emaitzen aurre-rapen hori oso lotuta dago aurreko atalean adin-taldearen arabera erakutsitako enpleguaren inguruko egoerarekin. Horrela, bada, lan-arloan presentzia handiena duen emakume taldeak, 31 eta 45 urte artekoak, ekartzen ditu diru-sarrera gehien bizikidetza-unitatera, % 63,7k hain zuzen. Aldiz, landunen kopuru baxuena duten bi emakume-taldeei dagokienez, batzuk ikasten ari direlako (18-30 urte bitartekoak), etxeke lanetan dihardutelako (45-

64 urte bitartekoak), gutxiago dira diru-sarrerak ekartzen dituztenak, eta hori nabarmenagoa da gainera, emakume-talderik gazteenean.

AHALDUNTZE MAILA ALTUA BENETAKO KUDEAKETA EKONOMIKOAN

6.3


Atal honetan ahalduntze ekonomikoaren beste maila batzuetan jarriko dugu arreta: bizikidetz-unitatearen diru-sarreraren "benetako" kudeaketan, diru-sarrera horiek unitate gisa hartuta, eta, beraz, jatorria eta pertsona batek edo besteak sortutakoak diren, eta horrek etxe eta familia horretan emakumeari erabakiak hartzeko ahalmena ematen dion kontuan hartu gabe.

6.3. grafikoak erakusten du zeintzuk dauden inplikaturak bizikidetz-unitateko gastuen kudeaketan, modu orokor batean. Taula hainbat eratarik interpreta daitezkeen arren, kasu honetan bistakoak dira emakumeen belaunaldien arteko aldeak, gazteenak baitira, (18 eta 30 urte bitartekoak), gehienak gurasoekin bizi direnez (etxebizitzari dagokionez, emantzipatu gabe), bizikidetz-unitatearen gastuen kudeaketan erabakitzekeo ahalmen gutxien dutenak.


Horiek horrela, eta azken emaitzetan dezente eragiten du horrek, 31-45 urte bitartekoei eta 46-64 urte bitartekoei erreparatzen badiegu, emakume gehienek hartzen dute parte bizikidetz-unitatearen gastuen kudeaketa erabakitzekeo orduan, nahiz eta azpimarratzekoa den, ez dutela beraiek bakarrik erabakitzen, eta erabaki gehienak beste kideekin batera hartzen dituztela bi adin-taldeen (% 64,5ek eta % 51,8k, hurrenez hurren).

Baina emakumearen presentzia handiago horrek, diru-sarreraren jatorria eta emakumearen hezkuntza-maila kontuan izaten ez duenak gainera, bestelako ñabardurak erakusten ditu gertuagotik begiratutakoan, eta erabakiak zer gasturi buruzkoak diren zehazten hasten direnean. Alde horretatik, 6.4. grafikoak erakusten du nahiz eta emakumeen % 73,4k erabakietan parte hartu, eta parte-hartze hori 31-45 adin-taldean nabarmenagoa izan (% 87,8), hain zuzen ere lan-arloan presentzia handiagoa duen emakume taldean, "emakumearen halako espezializazio moduko" bat gertatzen dela bizikidetz-unitatearen gastuen benetako kudeaketari dagokionez, eta emakumeak soilik dauka "ahalmena" eguneroko erosketak egiteko eta mendeko pertsonak zeinek eta nola zaindu behar dituen erabakitzekeo, eta, erabaki partekatuak berriz, gehiago lerratzen dira hain ohikoak edo egunerokoak ez diren gaietara: ezohiko gastuetara, mailegu-eskaeretara eta aurrezkien erabilerara.

6.3. GRAFIKOA Bizikidetzta-unitatearen gastuen kudeaketa. Inplikaturata dauden pertsonak. Adin-taldeka eta guztira. Ehunekoak.



6.4. GRAFIKOA Bizikidetzta-unitatearen gastuen kudeaketa, gastu motaren arabera. Inplikaturata dauden pertsonak. Adin-taldeka eta guztira. Ehunekoak.




Kapitulua ixteko, etxe eta familiako gaietarantz doan eta, oro har, bizikidetzta-unitatearen kudeaketa ekonomian duen presentzia handiago horren bidez mamitzen den emakumearen espezializazio horrek ahalduntze-prozesurako dituen ondorio batzuk aipatuko ditugu.

“ENPLEGUA DUTEN (ETXETIK KANPO LAN EGITEN DUTEN) EMAKUMEAK AUTONOMOAGOAK DIRA” **6.4**

Gure argumentuen logikaren arabera, “enplegua” izatea, hau da, produkzio- eta lan-arloan presentzia izatea, lanaldi osoan “etxeko andre gisa” jardutea edo presentzia osoa familia-
ra eta etxera mugatzea ez bezala, ezinbesteko baldintza da, une honetan, emakumeen
ahalduntze-prozesua modu eraginkorrago edo osoagoan garatzeko.

6.5. grafikoko emaitzek ederki erakusten dute ikuspegi hori zenbateraino dagoen zabaldu-
ta, azterlanerako ezarri diren hiru adin-taldeek esaten baitute enplegua duten emakumeak
autonomoagoak direla erabakiak hartzerakoan. Iritzi hori are sendoagoa da adinak aurrera
egin ahala; eta horrek esan gura du, beste interpretazio batzuen artean, norberaren bizi-
esperientziak berretsi egiten duela iritzi hori; eta, aldiz, gazteenek, 18-30 urte bitartekoek,
halako heldutasun falta batengatik edo, pentsa dezaketela erabakiak hartzeko autonomia
indibiduala lotuagoa dagoela pertsonaren izaerarekin berarekin, lanarekiko harremanarekin
baino.


6.5. GRAFIKOA “Enplegua duten emakumeak autonomoagoak dira erabakiak
hartzerakoan, etxean bakarrik lan egiten dutenen aldean” Adin-
taldeka eta guztira. Ehunekoak.



6.6. grafikoak berretsi egiten du emakumeen independentzia ekonomikoaren, enpleguaren
–eta hortaz, lan-arloko presentziaren– eta erabakiak hartzeko autonomia indibidual handia-
goaren arteko erlazio dialektikoa, emakumeek ontzat ematen baitute hori hala dela, egun
enplegua izan ala ez; hau da, emakume landunak (% 86,3) eta etxeko lanetan dihardute-
nak (% 82,9) bat datoz horretan. Agian, eta interpretazio-hipotesi gisara, kanpo-lana egite-

rakoan langabezia zeuden emakumeengan erregistratu den ehuneko baxuagoak (% 73,3) esan nahi dezake, behin lanean ibili ondoren eta lanean jarraitzeko borondatea izanez gero, horrek berez ematen duela nolabaiteko autonomia indibiduala, eta eutsi egiten zaiola gero-
ra ere, unean uneko lan-egoera edozein dela ere.

6.6. GRAFIKOA "Enplegua duten emakumeak autonomoagoak dira erabakiak hartzerakoan, etxean bakarrik lan egiten dutenen aldean". Enpleguarekiko erlazioa eta guztira. Ehunekoak.



Labur-labur adierazi beharko bagenu, publizitate-mezu baten antzera, enpleguak ahalmena ematen duela esango genuke. FLAQUERek (1998:45) esan bezala, badirudi emakumeei dagokienez, lana ez dela jada zigorra, autonomia pertsonala, independentzia ekonomikoa eta autogratifikazioa lortzeko bide bat baizik. Izaera kuantitatiboa duen ikerketa honetan alderdi horiek gehiegi sakontzeko aukerarik ez izan arren, Euskal Herrian egin izan da ikerlan enpiriko kualitatiborik, hala nola EMAKUNDEk (2007) eta ROYOk (2011); eta azterlan horien argitan, emakumeen kasuan, enpleguaren dimentsio instrumentalari adierazgarritasunaren dimentsioa gehitu behar zaio (ZUBERO; 1988:135 eta hurr.) Kasu honetan, haratago joan gaitzke, eta esan dezakegu, emakumeei "esleitu" zaien "etxekotasun" horretatik askatu egiten dituela enpleguak; enpleguaren espazioa eta denbora ihesbide moduan hartzen dute, beti etxean, eta etxean bakarrik ez egoteko modua; bestela esanda, "emakumeen indibidualtasuna baiesten du" (ROYO; 2011:170, 173 eta 176).

**BEREN BURUA
"ETXEKOANDRETZAT"
JOTZEN DUTEN
EMAKUMEEN IRITZIAK**

6.5


Enplegua horrela hartzeak, hau da, 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen bizitza egituratzen duen ardatz gisa (DEL VALLE ET AL.; 2002: 137 eta hurr.), baina, aldi berean, bere ahal-duntze-maila areagotzen duen balio gisa, esan nahi du, besteak beste, "etxetik kanpo lan egitea", enplegu mota gorabehera, gizartean nolabaiteko prestigioa ematen duen faktore bihurtu dela; edo agian, zehatzagoa izango litzateke esatea, etxean geratzeak eta etxe-koandre bakarrik izateak ez duela prestigiorik ematen gizartean (MONTORO; 2003:182).

Baina "etxe-koandrea" identitate ahul eta, are, mespretxatu horrek (EMAKUNDE, 2007:99), -generoaren arabera rol eta arloen banaketa-eredu batean, zaharkiturik dagoen irudi estereotipatu bat islatzen duelarik, hau da, ahalmen gutxi duen edo, hala ez bada ere, besteek baino gutxiago duen emakume idealaren eredu bat-, ez du esan nahi, inondik ere, jada etxe-koandrerik ez dagoenik. Ezkutatu egiten ditugu. IZQUIERDOk (2001:55) esan bezala, egun, etxe-koandrea aipatzen denean, iraganaldiko figurak balira bezala aipatzen dira.

Horregatik, badirudi oso egokia dela, azterlan honetan, landa-lana egiterakoan beren buruak "etxe-koandretzat" hartutako emakumeek berek zuzenean emandako iritziak "bistaratzea". Alde horretatik, lehen ere aipatu dugu zalantzarik gabe funtsezkoa den adierazle bat: etxe-ko lanetan diharduten emakume-talde horrek uste du, erabakiak hartzerako orduan, autonomia gutxiago dutela, enplegua duten emakumeek, hots, produkzio-arloan presentzia duten emakumeek baino. Badirudi emakume horiek bere berrindartu egiten dutela etxe-koandrea eredu negatibotzat hartzen duen egungo irudi sozial hori. Haien iritziak sakonago lantzea komeni da, jakiteko zenbateraino den "etxe-koandre" izatekoa, emakumeek bere kasa autonomiaz hartutako erabakia, eta produkzio-mundura ez baino, etxe-aren eta familiaren mundura bideratutako ahal-duntze-estrategia bat; eta lan-ildo horretan, belaunaldi batekoa edo bestekoa izateak, eta beraz, testuinguru sozialak eta sozializazioarenak, erabaki horiek hartzerakoan zenbateraino pisua duen ikusten saiatzea.

6.7. grafikoak, gaur egun, jarduerari dagokionez "etxe-koandre" diren emakumeen funtsezko bi ezaugarriren testuingurua ulertzen laguntzen du: alde batetik, ia lautik hiru (% 73,9) 46-64 adin-taldekoak dira; eta bestetik, horietatik ia hiru laurden (% 74,8) noizbait lanean ibilitakoak dira, eta horrek esan nahi du beren bizitza ez dela beti etxe- eta familia-arlora mugatu.

6.7. GRAFIKOA "Etxeko lanetan" diharduten emakumeak. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.



Lanean ibilia izateak edo ez, "etxeoandre" diren emakume-talde horrek erabaki hori zergatik hartu duen ulertzen lagundu dezake, baldin eta inolako lan-esperientziarik izan ez duten emakumeen % 25,2ren arrazoiei erreparatzen badiegu (6.3. taula). Testuinguru historikoaren eta, hortaz, genero-sozializazioaren pisua nabarmena da; besteak zaintzeko hezitako emakumeak dira (MURILLO; 1996), hori zuten bide bakarra, batez ere zaharrenek, 1948 eta 1966 artean jaiotakoek. Horrek ez du esan nahi, ordea, inork bide hori hartzeko aukera indibidualik egin ez duenik, batez ere 31 eta 45 urte bitarteko emakume-taldean; dena dela, adin talde horretan "breadwinner" edo etxera ogia ekartzen duenaren ereduaren aztarnak ere geratzen dira oraindik.

6.3. TAULA Etxeko lanetara dedikatzeko erabakia hartzeko arrazoiak. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.

	18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
... horretarako hezi gintuztelako	100,0	18,8	37,3	34,5
... horixe egin nahi nuelako		18,8	22,4	21,4
... une horretan ez zegoelako beste aukerarik		18,8	19,4	19,0
... ez daukadalako beharrik (behar ekonomikorik)		25,0	4,5	8,3
... prestakuntza/hezkuntza faltagatik		6,3	6,0	6,0
... egungo egoera ekonomikoagatik (ez dago lanik)		6,3	1,5	2,4
... kanpoan lan egiten zuen beste norbait zegoelako			3,0	2,4
... Besterik (zehaztu)		6,3	6,0	6,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Baina ikuspuntu kuantitatibo batetik, interesgarriagoa da “etxeoandre” guztien artetik noizbait enpleguren bat, ordaindutako lanen bat, izan duten eta, beraz, lan-arloan parte hartu duten % 75 horien emaitzei erreparatzea. Emakume-talde hori hizpide hartuta, 6.4. taulak emakume horiek lanaldi osoa etxean eta familian emateko erabakia zergatik hartu zuten azaltzen du, ehunekorik handienetik txikienera antolatuta. 1948 eta 1966 urteen artean jaiotako emakumeen belaunaldiaren eta 1967 eta 1980 urteen artean jaiotakoen artean badira alde esanguratsu batzuk. Horrela, bada, lehenengoentzat, hau da, 46 eta 64 urte bitartekoentzat, une historiko eta sozializazioko horretan, ezkondu eta seme-alabak artatzea/zaintzea generoarekin erabat lotutako bi mugarri ziren. Eta, aldiz, egun 31 eta 45 urte bitartean dituzten emakumeentzat ez dago horrelako berezko loturarik; egoera zibila aldatzeak ez dakar berekin lanaldi osoa etxeari eta familiari dedikatzea. Bizitzako egoera hori bi gertaera nagusiri zor zaio, hau da: zainketara dedikatu delako (eta hori bai, nolabait generoak baldintzatzen du), edo, gertaera exogeno batengatik, hala nola lanaren egoeragatik, hau da, lan-kontratua amaitu zitzaielako (“bota egin ninduten, ez zidaten berritu”).

Adierazleak apalak izan arren, ikus daiteke gure egunerokotasunean badirela eredu zaharrak, berriak eta gorantz datozenak (DEL VALLE ET AL.; 2002), kasu honetan, euskal emakumeak lanaldi osorako etxearen eta familiararen arlora eramaten dituzten arrazoiei dagokienez. Eta, horrela, ikusten dugu badirela emakume batzuk guztiz atxikita ez daudenak gizon/publikoa emakume/pribatua eredura (edo PATEMANen (1995) planteamendu nagusia hartuta, sexu-kontratu horretara), eta, aldiz, beste baldintzatzaile batzuk sartzen direla jokoan, berez generoarekin zerikusirik ez dutenak, eta lotuagoak daudenak enplegagarritasun kontuekin. Eta hori bat dator emakumearen autonomia handiagoa islatzen duen joera markatu horrekin, eta, kontuan izan behar da gainera, belaunaldien logika kronologikoak sendotu egingo duela joera hori.

6.4. TAULA Kanpoan lan egiten ez jarraitzeko arrazoiak. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.


	18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
... seme-alabak artatu/zaintzeko		36,9	25,7	28,1
... bota egin nindutelako, ez zidatelako berritu	20,0	38,5	19,0	24,1
... ezkondu egin nintzelako		3,1	27,4	20,5
... osasun arazoengatik / gaixotasunagatik		4,6	7,3	6,4
... beste norabait joan nintzelako bizitzera	40,0	4,6	5,0	5,6
... ordutegia komeni ez zitzaidalako		4,6	3,9	4,0
... etxeo lanetan aritu ahal izateko		3,1	2,2	2,4
... oso garbi nuelako etxeo lanetan aritu nahi nuela		1,5	2,8	2,4
... lana ez zutelako ondo ordaintzen	20,0	3,1	1,1	2,0
... nire bikotekideak/ezkontideak ezetz esan zuelako			0,6	0,4
Beste batzuk (zehaztu)	20,0		5,0	4,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

6.8. grafikoko datuek egun lanaldi osoa etxeo lanetara dedikatzen duten emakumeek erabaki hori zergatik hartu zuten argitzen dute. Emakume horiei, aurretik lan-esperientziarik izan ala ez, berriro lan-arlora itzultzeko asmoaz galdetuz gero, garbi dago bi eredu daudela.

Belaunaldirik zaharrenak, 46 eta 64 urte bitartekoak, uste du produkzio-arloa jada ez dela beretzat (% 82,1). Baina ehuneko hori erdira baino gehiago jaisten da (% 39,5), 31 eta 45

urte bitarteko emakumeen artean. Eta are nabarmenagoak dira, emakumerik gazteenen artean, hots, 18 eta 30 urte bitartekoen artean, talde horretan lanaldi osoan etxean eta familiarekin jardutea ez baita aukera edo alternatiben artean sartu ere egiten.

6.8. GRAFIKOA Egun, lanaldi osoa etxeko lanetan ematen duten emakumeek lan-arlora itzultzeko duten asmoa. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.



Lanaldi osoan etxeko lanetan diharduten 18 eta 64 urte bitarteko Euskadiko emakumeetatik % 70,3k erantzun zuten, egun ez daukatela asmorik lan-arlora itzultzeko, eta erabaki horren arrazoia galdetu zitzaion (6.5. taula). 46-64 urte bitartekoen taldearen arrazoiak –erantzun hori ematen duten gehienak talde horretakoak dira–, adinarekin lotuta daude, bizitza egituratu duten moduarekin edo, are, osasun-arazoekin ere. Aitzitik, 31 eta 45 urte bitarteko emakumeen artean, lan-arlora itzultzeko asmorik ezaren arrazoi nagusia ugalketa- eta produkzio-denborak uztartu ezinari zor zaio, zuzen-zuzenean. Eta horrek erakusten du, neurri handi batean, emakumea, oraindik ere zaintzaile nagusiaren rola izanik, zigortuta dagoela, enpleguaren ikuspuntutik.

6.5. TAULA Egun, lanaldi osoa etxeko lanetan ematen duten emakumeek lan-arlorara ez itzultzeko dituzten arrazoiak. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.

	18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
...adinagatik			28,2	24,4
... egungo egoerarekin konforme nagoelako		15,6	19,8	19,2
... zail ikusten dudalako nire familia-egoerarekin bat etorriko den lan bat bilatzea		56,3	11,9	17,9
... osasun arazoengatik / gaixotasunagatik		3,1	17,3	15,4
... ez dudalako diru beharrik		12,5	8,9	9,4
... egungo egoera ekonomikoarekin oso zaila ikusten dudalako lan bat aurkitzea		6,3	7,4	7,3
... zail ikusten dudalako nire prestakuntzarekin bat etorriko den lan bat aurkitzea		3,1	2,5	2,6
... nire ingurukoek (familiak, lagunek, auzokoek,...) ez luketelako ulertuko		3,1	0,5	0,9
... nire bikotekideak/ezkontideak ezetz esango lukeelako			0,5	0,4
... esperientzia profesionalik ez izatea oztopo izango litzatekeelako			0,5	0,4
... Besterik (zehaztu)			2,5	2,1
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0

Era berean, eta aurreko informazio horren osagarri, lanaldi osoan etxeko lanetan diharduten eta noizbait lan-merkatura itzultzeko asmoa daukaten emakumeei (ia % 30 dira eta gehientsuenak 31-45 urte bitartekoak) galdetu zitzaaien ea noiz hartu zuten erabaki hori (6.6. taula). Eta, egun lanaldi osoa hartzen dien seme-alabak hazteko jardueraren amaiera da, funtsean, batetik besterako aldaketa erabakiko duen gertaera.

6.6. TAULA Lanaldi osoa etxeko lanetan ematen duten emakumeak lan-arlorara itzultzeko unea. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.

	18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
... seme-alabak handitzen direnean	50,0	50,0	11,8	36,7
... ziklo ekonomikoa aldatutakoan		23,3	29,4	24,5
... egoki iruditzen zaidanean (gogoa dudanean)	50,0	16,7	17,6	18,4
... nire egungo familia-egoerarekin hobeto etorriko den lan bat aurkitutakoan		6,7	5,9	6,1
... nire prestakuntzarekin hobeto etorriko den lan bat aurkitutakoan			17,6	6,1
... Besterik (zehaztu)		3,3	17,6	8,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Baina aurreko datu horiek errealitatearen zati bat baino ez dute erakusten; hain zuzen ere, lan-merkatura itzultzeko emakumeen borondatea edo erabakia. Baina badago beste alderdi bat, egiturarekin lotuagoa dagoena, erabaki indibidualaz haratago doana, eta erakusten duena badirela, lan-merkatuan, halako baldintzatzaile batzuk, enplegarritasunari eragiten

diotenak. Izan ere, une honetan lan bila dabiltzan emakumeen % 15 (hau da, "Bai, saiatzen ari naiz" erantzun zutenak, 6.8. grafikoa), borondate hori gauzatzen saiatu izanaren eskarmentua islatzen dute. 6.7. taulak erakusten du egungo egoera ekonomikoa ez dela lan-merkatu sartzeko unerik onena (% 34). Baina, orain baino lehen ere, kalitatezko enplegu bat lortzeko egoera ustez hobea izanda ere, emakume guztiek ez zuten horrelako erraztasunik lan-merkatuan sartzeko. Eta horrela, egun lan-jarduerarekiko harremana, enplegu baten bidez (% 40) aldatu nahian dabiltzan 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek "adina" oraindik ere zigortua dagoela sentitu eta sumatzen dute, eta hori are nabarmenagoa da 46 eta 64 urte bitartekoen artean (% 48,1). Eta badakigu, adina zigortze horren atzean, azken finean, genero femeninoaren diskriminazioa ere badagoela. Agian, horrek lagundu diezaguke ulertzen, zergatik gaur egun lanaldi osoan etxeko lanetan diharduten hamar emakumetatik zazpik ez daukaten lan-merkatuan sartzeko asmorik.

Esan beharra dago, azkenik, enplegua bilatzerakoan, pisu handiagoa dutela lan-merkatuaren egituraketak berez dakartzan zailtasunak eta ekonomiaren egungo egoerak (arrazoi exogenoek) emakumeak pertsona gisa autonomia osoz erabaki bat hartzeko dituen zailtasun edo oztopoek (arrazoi endogenoek) baino. Horrela, bada, ezkontide/bikotekidearen oposizioa, –bikotearen arteko harremanetan nagusitasun patriarkalean oinarritutako egitura baten adierazgarri–, emakume guztien % 2k nozitzen dute, eta ehuneko hori altuagoa da adin handieneko taldean.

6.7. TAULA Egun, lanaldi osoan etxeko lanetan diharduten, baina lan-merkatuan enplegu bila dabiltzan emakumeek aurkitzen duten zailtasun nagusia. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.

	18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
... adinagatik	25,0	31,6	48,1	40,0
... egungo egoera ekonomikoarekin oso zaila ikusten dudalako lan bat aurkitzea	50,0	42,1	25,9	34,0
... zail ikusten dudalako nire prestakuntzarekin bat etorriko den lan bat aurkitzea		15,8	11,1	12,0
... nire bikotekideak/ezkontideak ezetz esango lukeelako			3,7	2,0
... zail ikusten dudalako nire familia-egoerarekin bat etorriko den lan bat bilatzea			3,7	2,0
Bestelakoak	25,0	10,5	7,4	10,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0


EZ BALDINTZA BERAK, EZ AUKERA BERAK, EZ SOLDATA BERAK

6.6


Enpleguaren anbigualentzia, emakumearen lan-arloko presentziari dagokionez autonomia eta diskriminazioa, bi aurpegi baititu, askotan aipatzen den kontu bat da, batera nahiz bestera, emakumeen errealitatea aztertzen duten ikerlanetan (IZQUIERDO; 2001:46; TUDELA y VALDEOLIVAS; 2005; PRIETO, C. ET AL.; 2008; ROYO; 2011; EMAKUNDE; 2011a). Baina ikuspegi zabalago batetik hartuta, gure egunerokotasunean, identitate indibidual eta sozialen arloan gertatzen ari den eraldaketa sakona erakusten du, bai eta lana zenbateraino izan daitekeen norbanakoen, emakume nahiz gizonen, identitatearen ardatz nagusia (PRIETO, C. ET AL. 2008).

Euskadiko 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek argi eta garbi adierazten dute egungo lan-arloak oraindik ere eutsi egiten diola generoen arteko desberdintasunari. 6.9. eta 6.10. grafikoez islatzen dituzten kopuruek iritzi horiek adin-talde guztientzat nagusitzen direla erakusten dute: hamarretik ia zortzik (% 78,6k) uste dute emakumeek ez dituztela gizonen lan-baldintza berberak; eta lautik ia hiruk (% 74,2k) uste dute lan-aukerak ez direla berberak emakumeentzat eta gizonezkoentzat.

6.9. GRAFIKOA “Emakumeek eta gizonen lan-baldintza berberak ditugu”. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.




6.10. GRAFIKOA “Emakumeek eta gizonek aukera berberak ditugu gure karrera profesionalean”. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.



Edonola ere, emakumeek ematen duten egoeraren definizioa nahikoa orokortua dagoen arren, hau da, guztiek, belaunaldia, jarduerarekiko harremana, ikasketa-maila edo bizikidetzaz-modua gorabehera, berdintsu irizten duten arren, komeni da elkarrekin oso lotuta dauden bi alderdiri buruzko xehetasunak ematea. Batetik, emakume gazteenengan, hots, 18 eta 30 urte bitartekoengan ikusten da lan-arloko diskriminazio-mailarik baxuena, baldintza eta aukerei dagokienez. Aitzitik, adin handieneko emakumeak dira, agian jakiteko arrazoi gehien dutenak, ehuneko altuenak erakusten dituztenak.

6.11. grafikoan, ordea, emakumeen lan-arloko diskriminazioa nahiko berdin ikusten dute talde guztiek, kontuan izanik hamarretik zortzik esaten dutela lan beraren truke emakumeek gizonen baino soldata txikiagoa izateak baduela eraginik erabakiak era autonomoagoan hartzeari dagokionez. Gure lan-merkatuaren handicap hori, makroekonomiaren arabera “egiturazkoa” dena eta garbi erakusten duena eredu patriarkalak oraindik ere bizirik jarraitzen duela (emakumeek eta gizonen bizitza publikoan eta pribatuan duten presentzia genero-pauta islatzen duena), oso garbi daukate belaunaldi gazteenekoek, agian zuzenean edo zeharka bizi izan dutelako, nahiz eta ezin dugun baztertu, galdera bera ere zuzenagoa edo esplizituagoa izatea.

6.11. GRAFIKOA “Erabakiak modu autonomoagoan hartzerako orduan, lan beragatik gizonen eta emakumeen soldaten artean dauden ezberdintasunek eragina dute gudan”. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.




Azterlan honetarako erabili den galdetegiari esker eskuratutako elementuek emakumeek lan-merkatuan bizi duten segregazio horizontal eta bertikala berresten badute ere (ikus 6.8. taula eta 6.12. grafikoa), badirudi Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeak esan nahi digutela lan-arloko genero-desberdintasunak elementu nolabait ere “sotilagoen” baina ez ahulagoen ondorio direla, “kristalezko sabaitik” haratago –BARBERÁ, E. ET AL. (2002)– egongo liratekeen elementu batzuen ondorio. Bestela esanda, lan-arloaren egoera definitzerakoan genero maskulinoaren erabakien nagusitasuna azpimarratzen dute, eta alderdi horrek erakusten du gure eguneroko bizitzan erabakiak hartzeko ahalmenaren –“boterearen”, zentzu zabalean hartuta– banaketa asimetrikoak bizirik jarraitzen duela, eta, jakina, emakumeari etxe- eta familia-arloa esleitzen zaiola, hurrengo kapituluan erakusten saiatuko garen legez.

Ezbairik gabe, prestakuntza-ibilbideak “aukeratzen” direnetik bertatik genero-baldintzatzaileak daude, eta aukera horren izaera “feminizatuagoak”, gerora, enpleguaren feminizazioa ekarri ohi du. Horrek 6.13. grafikoko erantzunak ulertzeko elementuak eskaintzen dizkigu, emakumeen prestakuntzaren eta enpleguaren arteko oreka nahiko handia ikusten baita, nahiz eta oreka hori txikiagoa den adinean behera egin ahala. Jakina, gure lan-merkatuarekin hain ondo datorren lanbidean gora egitearen aldeko diskurtsoan ezkututzen den logikak erraz azalduko luke korrelazio horren testuingurua, baina horrek ez ditu genero-segregazioko prozesuak errotik deusezten prestakuntza-ibilbideetan, eta, azken finean, desberdintasunak jarraitzea ahalbidetzen du, eta ez lanaren esparruan bakarrik, baita gizartean oro har ere.


6.8. TAULA Lana duten edo inoiz izan duten emakumeen lan-mota nagusia bizitzan zehar (Lanbideen Estatuko Sailkapena, digitu 1) Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak.

	18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
Sukaldariak, zerbitzu pertsonalak, bizkartzainak eta dendariak	43,4	29,9	28,8	32,7
Teknikari eta profesional zientifikoak eta intelektualak	27,4	21,4	17,9	21,5
Oinarrizko lanbideak	6,3	10,9	16,5	11,9
Laguntzarako teknikariak eta profesionalak	9,7	13,5	9,3	11,1
Kontabilitateko, administrazioko eta bulegoetako bestelako enplegatuak	7,5	10,0	8,5	8,9
Instalazioen eta makinaren operadoreak eta muntatzaileak	1,3	3,0	8,1	4,4
Sailkatu gabeak	1,9	3,0	4,4	3,2
Manufaktura-industrietako eta eraikuntzako artisau eta langile kualifikatuak (instalazio-langileak izan ezik)	0,3	3,1	4,8	3,1
Zuzendariak eta kudeatzaileak	1,6	4,8	1,0	2,7
Nekazaritza-, abeltzaintza-, basogintza- eta arrantza-sektoreetako langile kualifikatuak	0,3	0,4	0,4	0,4
Lanbide militarrik	0,3			0,1
Ez du erantzun		0,0	0,2	0,1

6.12. GRAFIKOA Lana duten edo inoiz izan duten emakumeek beste pertsona bat zuten gainean duten erantzukizuna. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak.



6.13. GRAFIKOA Lana duten edo inoiz izan duten emakumeen prestakuntzaren eta enpleguaren arteko oreka. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak.




**EMAKUMEEN
BOTERE-BANAKETA
ASIMETRIKOAREN
IRAUPENA,
ESPARRUEN
ARABERA**

6.7

Azterlan honen emaitzek, 2012ko ekainean eta uztailean zehar egin baitzen, egin izan diren beste azterlan kuantitatibo eta kualitatibo batzuen esparruan behin eta berriro adierazitako adierazle berberak jasotzen dituzte, ahalduntzearen ikuspuntutik. 6.14. grafikoak hainbat alderdi azalera dituzte: batetik, berretsi egiten du, kasu honetan, 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek elementu gehiago integratzen dituztela, –inguru hurbileko pertsonak (familia-koak, ...)– erabakiak hartzeko beren estrategietan. “Besteengana” bideratuta egongo lirarteke emakumeak; emakumeek MURILLOK (1996) dioen legez, “besteentzat izate” hori barneratuta izango lukete, EMAKUNDEren (2007) azterlan kualitatibo batean ondorioztatu bezala. Eta azpimarratu beharra dago, gertaera hori oso barneratuta edo sendotuta dagoela emakumeengan, ezarritako hiru belaunaldietako enplegu-prozesuak eta bizitzak gorabehera, bat baitatoz iritzi horretan; erantzunak guztiz homogeneoak dira.


6.14. GRAFIKOA “Erabakiak modu autonomoagoan hartzerako orduan, gure inguruko pertsonengan gudan baino gehiago pentsatzeak eragina du gudan”. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.



Eremu publikoan, kasu honetan lan-arloan, emakumeek beren ekintzetan duten autonomia-maila zenbateraino dagoen urrituta ikusteko, 6.15. grafikoari erreparatu besterik ez dago. Hain dago zigortua amatasuna eta haurrak zaintzea lan-arloan, hain hartzen da hori “emakumeen kontutzat”, erabaki indibidualtzat, eta ez erabaki sozialtzat, ezen enplegu egonkor seguru samarra lortzea –eta ez derrigor emakumearen gaitasun profesionalarekin edo, are desioekin bat datorrena–, helburu bazterrezin bihurtzen baita emakumearentzat, bere familia propioa sortzeko erabakia hartu ahal izateko.

Berriki egindako azterlan batean, Euskadin bizi diren hiru pertsonatetik bik, –erantzunetan generoen arteko alderik gabe eta adin-taldeen arteko alde handirik gabe–, esaten zuten, seme-alabak izateak “asko edo dezente” mugatzen duela emakumearen garapen profesionala, eta gizonezkoei dagokienez, % 10ek baino ez zuten hala pentsatzen (GABINETE DE PROSPECCIONES SOCIOLOGICAS: 2012: 31). Ildo horretatik, 6.15. grafikoaren alderdi deigarrienetako bat da nola, emakumeen kasuan, enplegua eta familia propioa aurrez aurre jartzen dituen perspektiba hori, bereganatuagoa duten emakume gazteenek, 18 eta 30 urte bitartekoek (% 64,3), oraindik ere lanari dagokionez emantzipazio pertsonalaren lehenengo prozesu batean egongo lirartekeenak gehientsuenak, eta seguruenik, familia bat izateak edo asmo horretan egoteak enplegua lortzeari begira dituen zailtasunak eta ozto-poak nozitzen ari direnak.

6.15. GRAFIKOA “Emakumeek ezin dugu seme-alabak izatea pentsatu, lehenda-bizi lanpostu bat ez badugu”. Adin taldeka eta guztira. Ehunekoak.




Azterlan honek erakusten du beraz, emakumeen erabakiak hartzeko estrategiak konplexuagoak direla, elementu gehiago sartzen direlako jokoan, eta, era batera edo bestera, “norbera” erabakitze faktoreari –MURILLOren esanetan (1996) “ni lehenengo” horripisu espezifikoa kentzen diotela, faktore hori, berez, enfatizatuagoa dagoelarik erabakiak hartzeko gizonaen estrategietan. Eta hori izango litzateke azpimarratu beharreko bigarrena, emakumeek beraien adierazten baitute erabakiak hartzeko “era” hori eragina duela norberaren “autonomia-mailan” eta, horrenbestez, ahalduntze-prozesuaren “irismenean”.

Eta euskal emakumeen iritziei erreparatzen badiegu, emakumeen erabakiak hartzeko ahalmenaren “maila” eta “irismena” nahiko desorekatuta dago gaur egun. 6.16. grafikoak erakusten du emakumeek nola sumatzen duten emakumeen eta gizonen botere-banaketa etxean edo familian, eta nola lan-arloan. Eta etxean eta familian erabakiak hartzeko ahalmen handiagoa islatzen den bitartean, aldiz, botere-simetria hori ez da gertatzen lan-arloan, esparru horretan gizonak erabakiak hartzeko duten ahalmena dezente handiagoa baita, emakumeen ustez.

Emakumeak eta gizonak ez daude baldintza beretan, lan-arloan duten presentziaren mailari eta irismenari dagokionez erabakiak hartzeari dagokionez, gairidimentsionamendu bikoitz baten ondorioz: genero maskulinoa, lan-arloan; emakumea, etxe- eta familia-arloan. Eta berriro ere, oso azpimarragarria da iritzi hori zenbateraino dagoen hedatua, belaunaldi desberdinetako emakumeen artean ez ezik, baita hezkuntza-maila, familia-mota edo jarduerarekiko harreman mota desberdina dutenen artean ere.

6.16. GRAFIKOA

Lan-arloa vs. etxe- eta familia-arloa: Emakumeen erabakitze boterearen balantzea. Adin taldeka eta guztira. "Ados" erantzuna. Ehunekoak.



7

EMAKUMEEN MUGIMENDUAK: INTERESA, PARTE HARTZEA ETA EKARPENAK

Izenburuak berak adierazten duenez, kapitulu honetan, Euskadin bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko andreek emakumeen mugimenduez zein iritzi duten erakutsi nahi dugu. Andre horiek generoaren kontzientzia-maila nola hautematen duten ere jorratu dugu, adierazle batzuk aurkeztuz.

Edonola ere, arrazoizkoa dirudi iritzi horiek testuinguru batean kokatzea, hau da, ikusi beharko da, bai, ea hiru belaunaldi horietako euskal emakumeek benetan zenbateraino parte hartzen duten mugimendu horietan, baina baita ere ea, orokorrean, zenbateko interesa duten politikarekiko –politika zentzu zabalenean hartuta, hau da, publikoarekiko interes gisara–, eta baita ordezkari-tza publikoan inolako eskarmentu praktiko eta zehatzik izan duten.

Kapitulu honek, azken batean, ahalduntzearen dimentsio sozialenak eta politikoenak azalerratu nahi ditu, baina jakin badakigu parte hartzearen eta kontzientzia-hartzearen inguruko gai hau oraindik ere sakonago aztertu beharko dugula.

POLITIKA ETA ORDEZKARI- ESKARMENTUA

7.1

7.1. taula ikusita, bada gauza bat lehen-lehenik nabarmendu beharrekoa: 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek gaur egun zein interes gutxi duten politikarekiko. Hala ere, badira bi ñabardura azpimarratzeko modukoak: emakumeak ordezkari publiko moduan inolako esperientziarik izan badu, politikarekiko interesa dezente handiagoa da; eta azterlan honetan kontuan hartu diren hiru belaunaldien artetik, gazteenak, nolabait, besteek baino interes handiagoa du. Adierazleak, edonola ere, gure inguruko beste ikerlan batzuetako adierazle- en neurritsukoak dira (PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA; 2011 ETA 2012).

7.1. TAULA Politikarekiko gaur egungo interesa. Guztira eta adin-taldeka. 0-10eko eskala. Ehunekoak.


	18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
Ordezkaritza publiko modura eskarmentua BAduten emakumeen interesa	6,8	6,5	5,6	6,1
Ordezkaritza publiko modura eskarmenturik EZ duten emakumeen interesa	5,4	4,4	4,6	4,7
INTERESA, GUZTIRA	5,4	4,6	4,7	4,8

7.1. grafikoan bada beste elementu bat, zehatzagoa, parte hartzeari buruzkoa (ELIZONDO, 2004). Emaitza horiei begira, ikusiko dugu Euskadin bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek ez direla, ordezkari-karguetan, oso agerikoak, eta agerikoak izateak, azken batean, erabakiak hartzeko gaitasuna dakar, “boterea”, zentzu zabalenean ulertuta. Parte hartzeko eta erantzukizunak hartzeko eskarmentua, agidanean, sindikatu-lanean atxikitzen eta balia-

tzen dute, nagusiki. Horrek erakusten du, beharbada, parte hartzeko gogoia bideratzeko orduan oso garrantzitsua dela bizitza-zikloaren etapa batean edo bestean egotea, izan ere, 18-30 urte bitarteko taldean, sindikalgintza eta lan-arloa bigarren maila batean ageri da, hezkuntzan parte hartzearen atzetik.

Aipagarria da –eta honek badu zerikusia lehen esan dugun beste gauza batekin–, politikarekiko interesik handiena duen adin-taldeak –18 eta 30 bitartekoak– ez duela, horratik, arlo publikoan ordezkari-lanak egiteko edo erantzukizunak hartzeko esperientzia zehatzik gautzen, ez orain arte behinik behin. 18 eta 64 urte bitarteko emakume guztien % 8,1ek dio baduela edo izan duela ordezkari-posturen bat, baina, belaunaldirik gazteenaren artean, ehuneko hori 3,8koa da.

7.1. GRAFIKOA Ordezkari-lanak eta erantzukizun publikoa edo politikoa. Zein arlotan. Adin-taldeka eta guztira. Ehunekoak.



EMAKUMEAREN MUGIMENDUAK/ ELKARTEAK

7.2

18-64 urte bitarteko emakumeek zenbateraino parte hartzen duten ikusi nahian gabiltzala, eta ikerlan honen helburuak aintzat hartuta, derrigorra da begirada beherago pausatzea, maila zehatzago bati so egitea, eta ikustea ea zer dioten emakumeen mugimenduez.

7.2. taulan ikus daitekeenez, 18-64 urte bitarteko emakumeek nahikoa interes handiagoa dute emakumeen mugimenduekiko/elkartekiko (7,5), politikarekiko baino (4,8). Joera hori, gainera, aintzat hartu ditugun hiru adin-taldeetan nabari da, eta interesa handiagoa da, gainera, ordezkari publiko modura aritzen direnen edo aritu direnen artean.

7.2. TAULA Emakumeen mugimenduekiko/elkartekiko interesa, eta haien ekarria emakumeen bizi-baldintzetarako. Adin-taldeka eta guztira. (0-10 eskala)


		18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
Interesa, emakumeen elkartekiko/mugimenduekiko.	Ordezkarri publiko modura eskarmentua BA duten emakumeen interesa	8,5	8,2	8,1	8,2
	Ordezkarri publiko modura eskarmenturik EZ duten emakumeen interesa	7,4	7,1	7,6	7,4
	Interesa, guztira	7,5	7,2	7,7	7,5
Emakumeen mugimenduen/elkarteen ekarpena, emakumeen beren bizi-baldintzak hobetze aldera	Ordezkarri publiko modura eskarmentua BA duten emakumeen interesa	8,4	8,6	8,7	8,6
	Ordezkarri publiko modura eskarmenturik EZ duten emakumeen interesa	8,0	8,0	8,2	8,1
	Ekarpena, guztira	8,0	8,0	8,2	8,1

7.2. taulan ikusten denez, garbi dago 18-64 urte bitarteko emakume guztiek uste dutela –belaunaldi batekoak edo bestekoa izan eta ordezkari publiko modura aritu edo ez– emakume-mugimenduek asko egin dutela (8,1) emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko bidean.


Eta genero-harremanak eraldatu beharrak zer-nolako garrantzia duen galdetuz gero, joera hori bera nabari da 18-64 urte bitarteko emakumeen artean. Horretan ere baiezko erantzunak asko dira, % 83,6. 7.2. grafikoan ikus daitekeenez, emakume gazteenen artean are eta nabarmenagoa da joera hori, baiezko erantzunak % 91ra iristen baitira.

Hala ere, interes orokorra edukitzearen edo are eta motibazioa edukitzearen eta benetan emakumeen mugimenduetan parte hartzearen artean bada “gap” edo tarte bat, eta ez nolana hikoia. Eta halaxe ageri da 7.3. grafikoan. Grafiko horretako adierazleetan erreparatzen baldin badugu, hainbat ondorio erdietsiko dugu: orokorrean, estreinako irakurketa batek nabarmenduko luke emakume horien guztien % 75,1ek ez duela inoiz mugimendu horietan parte hartu. Hurrengo irakurketa batek erakutsiko du Euskadin bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen hamarretik batek baino zertxobait gutxiagok parte hartzen duela, gaur egun, mugimendu horietan (% 9,1ek). Eta, azkenik, orokortasun horretatik irten gabe, irakurriko dugu % 15,8k parte hartu izan duela, baina ez gaur egun.

7.2. GRAFIKOA Gizon-emakumeen arteko harreman-eredua eraldatzeko gogoia. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak.



7.3. GRAFIKOA Emakumeen mugimendu, elkarte edo eskakizunetan parte hartzea. Adin-taldeka eta guztira. Ehunekoak.



Adierazleek adin-taldeka zer erakusten duten ikusten baldin badugu, konturatuko gara badagoela beste irakurketa-maila bat ere. Azpimarratu beharreko lehengo gauza da adina eta emakume-mugimenduetan parte hartzeko joera lotuta daudela, baina atzekoz aurrera, hau da, 46 eta 64 urte bitarteko emakumeen % 70,7k ez du inoiz parte hartu, baina 18-30

urte bitarteko emakumeen artean, ehuneko hori hamar puntu handiagoa da. Badakigu ez dela erraza emaitza horiek interpretatzea, baina, egia da testuinguru soziohistorikoa aldatu egin dela, eta, agian, horregatik, 46 eta 64 urte bitarteko gaur egungo emakumeek –hau da, 1948 eta 1966 urte bitartean jaiotakoek– beren baitako gogo hori gizartean eta politikan parte hartzeko prozesuetara indar handiagoz bideratu zuten. Aldiz, egia da, era berean, 1966 ondoren jaio diren emakumeen testuingurua, eta batez ere, 1994 ondoren jaiotakoena, oso ezberdina dela. Horrek badu zerikusia gizarte-mugimenduetan parte hartzeko orduan, eta, nagusiki, emakume-mugimenduetan; hau da, gazteenek ez dute uste lehen-tasunik duenik, nahiz eta, esan dugun moduan, adin-talde guztien artean, gazteenek duten emakume-mugimenduekiko interesik handiena eta iritzirik onena eta genero-harremanak eraldatzeko gogorik biziena.

7.3. eta 7.4. tauletako emaitzetan ikus daitekeenez, emakume-mugimenduetan benetan parte hartzeak badu zerikusia beste bi gauzarekin: ordezkari-lan publikoak betetzearekin edo bete izatearekin; eta genero-harremanen eredia eraldatzeko gogo handiagoa edo txikiagoa izatearekin. Horrek esan nahi du emakume-mugimenduetan parte hartzeko haizea ematen duen hauspoak (eta nork berea izaten du) arlo publikorako interesa ere pizten duela. Hortaz, publikotasunaren plazan ibiltzeko gogoia berriro indartu ezean, gaitza dirudi emakume-mugimenduetan parte hartzeko gogoia atzera bizkortzea (DELGADO; 1999:211).

7.3. TAULA Emakumeen mugimenduekiko/elkarteekeko interesa eta partaidetzamaila. Adin-taldeka eta guztira. (0-10 eskala). Ehunekoak.

EMAKUME-MUGIMENDUEKIKO INTERESA	18-30 URTE				31-45 URTE			
	Bai, parte hartu dut eta hartzen dut	Bai, duela urte gutxi hasi naiz parte hartzen	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez	Bai, parte hartu dut eta hartzen dut	Bai, duela urte gutxi hasi naiz parte hartzen	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez
Ordezkaritza publiko modura eskarmentua BAduten emakumeen interesa	8,3	0,0	12,5	2,4	27,8	9,1	15,2	6,4
Ordezkaritza publiko modura eskarmenturik EZ duten emakumeen interesa	91,7	100,0	87,5	97,6	72,2	90,9	84,8	93,6
INTERESA, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	46-64 URTE				GUZTIRA			
	Bai, parte hartu dut eta hartzen dut	Bai, duela urte gutxi hasi naiz parte hartzen	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez	Bai, parte hartu dut eta hartzen dut	Bai, duela urte gutxi hasi naiz parte hartzen	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez
Ordezkaritza publiko modura eskarmentua BAduten emakumeen interesa	17,5	11,1	14,2	7,7	18,8	6,9	14,2	5,7
Ordezkaritza publiko modura eskarmenturik EZ duten emakumeen interesa	82,5	88,9	85,8	92,3	81,2	93,1	85,8	94,3
INTERESA, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

7.4. TAULA Genero-harremanen eredia aldatzeko duten gogoa eta zenbat parte hartzen duten emakumeen mugimenduetan/elkartetan. Adin-taldeka eta guztira. (0-10 eskala). Ehunekoak.

GIZON-EMAKUMEEN ARTEKO HARREMAN-EREDUA ERALDATZEKO GOGOIA.	18-30 URTE				31-45 URTE			
	Bai, parte hartu dut eta hartzen dut	Bai, duela urte gutxi hasi naiz parte hartzen	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez	Bai, parte hartu dut eta hartzen dut	Bai, duela urte gutxi hasi naiz parte hartzen	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez
Bai	95,8	100,0	95,8	89,6	88,9	90,9	95,7	77,5
Ez	4,2		4,2	7,7	8,3	9,1	4,3	15,4
ED/EE				2,7	2,8			7,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

GIZON-EMAKUMEEN ARTEKO HARREMAN-EREDUA ERALDATZEKO GOGOIA.	46-64 URTE				GUZTIRA			
	Bai, parte hartu dut eta hartzen dut	Bai, duela urte gutxi hasi naiz parte hartzen	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez	Bai, parte hartu dut eta hartzen dut	Bai, duela urte gutxi hasi naiz parte hartzen	Lehen bai, orain ez	Inoiz ez
Bai	93,0	88,9	87,6	77,0	92,3	93,1	92,1	80,7
Ez	5,3		8,0	13,5	6,0	3,4	5,9	12,6
ED/EE	1,8	11,1	4,4	9,5	1,7	3,4	2,0	6,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

EMAKUMEAK ZENBATERAINO JABETZEN DIREN BEREIZKERIEZ


7.3

Kapitulu hau amaitzeko, azter dezagun Euskadin bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek berek zer irizten dioten genero-bereizkeriaz dagoen kontzientziazio-mailari. Horrela, 5. kapituluan aipatu ditugun gaietako batera egingo dugu atzera, hau da, ikus dezagun ea zenbateraino jabetzen diren, edo uste duten, emakumeen aurkako bereizkeriarik badagoela edo ez.

Ekar dezagun gogora 18 eta 64 urte bitarteko 10 emakumetatik ia 8k (% 79,2) esaten duela emakumeak nolabait baztertuta daudela. Baietz erantzuten zuten horiei, eta horiei soilik, galdetu zitzaizen ea emakumea zenbateraino dagoen jabetuta bereizkeria horretaz (18-30 urte bitartekoen % 76,3; 31-45 urte bitartekoen % 80,8; eta 46-64 urte bitartekoen % 79,5). 7.4. grafikoaren arabera, euskal emakumeen hamarretik zortzik baino apur bat

gehiagok (% 82,3k) ez du inolako zalantzarik kontzientzia-maila handia dagoela, eta, gainera, beste behin ere, hiru adin-taldeak dira uste horretakoak.

7.4. GRAFIKOA Gaur egun emakumea bera zenbateraino jabetzen den emakumearen aurkako bereizkeriaz. Adin-taldeka eta guztira. Ehunekoak.



Horra hor emakumearen iritziz zenbateraino jabetzen den, emakumea bera, bereizkeriaz. Orokorrean jabetuta daude, baina bada % 17,7 bat beste era batera pentsatzen duena, eta haiei, zuzen-zuzenean, eskatu zitzaizen azaltzeko zergatik uste zuten ez dagoela kontzientzia hori. 7.5. taulak erakusten duena lehenago ere azaldu dugu: kosmobisio edo ideologia nagusi modura, matxismoak pisu handia du gauzak azaltzeko orduan, eta, horregatik, nolabait, bereizkeria "naturalizatu" egiten du, generoaren araberako ezberdintasunak "barneratuz" egiten ditu, eta ez du biderik ematen gertatzen denaz jabetzeko.

Eta beste gauza bat ere identifikatu da, interesgarria oso. Hau da, emakumeek berek diote badagoela "berdintasun-irudipen" moduko bat –ROYOk ere adierazi zuen (2011:35)-, irudipen maltzurra inondik ere, haren ondorioz emakumea konforme baitabil, lasai, mobilizatorik/erreibindikaziorik egin gabe, nahiz eta errealitateak erakutsi, egunero-egunero, oraindik ere asko dagoela egiteke berdintasunaren eta kontzientziatzearen bidean.

Gai hau dela-eta, emakume batzuek esan dute –eta ez dabilta aurreko planteamendu horretatik urrun– konformismo horren azpiko arrazoia gaur egungo kultura indibidualista dela, hau da, nork berea besterik ez duela begiratzen eta, horregatik, ez dagoela emakumeen balioak aldarrikatzeko eta defendatzeko ahalegin handiagorik.

Azkenik, emakume horietako lautik batek uste du –eta hau ere oso interesgarria da– zaila dela kontzientziaren gai horretaz orokorrean hitz egitea, emakume bakoitzak bere baldintzak baititu, ez baitira denak hezkuntza-maila, kultura-maila edo belaunaldi berekoak (batez ere emakume nagusienak), eta premia ekonomikoak ere ez baitira denentzat berberak, eta, kontzientzia-maila halakoa edo bestelakoa izanda ere, baldintza horiek erabakigarriak dira bereizkeria egon dadin.


7.5. TAULA Gaur egun, emakume batzuk bereizkeriaz jabetu ez. Arrazoiak. Adin-taldea eta guztira. Ehunekoak.

	18-30 URTE	31-45 URTE	46-64 URTE	GUZTIRA
... ez garelako pentsamendu/mentalitate matxistaren ereduaz konturatzen	32,8	27,3	21,7	27,2
... emakume bakoitzaren egoeraren araberakoa da	23,9	25,0	26,1	25,0
... berdintasun-irudipena, eta horrek ondorio maltzurra izan du, emakumeak jarrera konformista hartu baitu eta gehiegi lasaitu baita	10,4	17,0	8,7	12,5
... zenbait emakumek bereizkeria-rol hori onartzen dutelako	7,5	10,2	17,4	11,6
...zenbait emakumek bereizkeria- eta desberdintasun-egoera hori bultzatzen dutelako	14,9	5,7	4,3	8,0
... dagoen kultura indibidualista/egoistagatik	7,5	4,5	10,1	7,1
...beste batzuk	3,0	5,7	7,2	5,4
Ed/Ede	0,0	4,5	4,3	3,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0


Kapitulu hau amaitzeko, ikus ditzagun azkeneko bi irudiak. 7.5. grafikoak erakusten duena oso interesgarria da: emakumeen mugimenduetan ibilita dauden emakumeak dira uste dutenak, nahiz eta oraindik bereizkeria egon badagoen, gai honetan gehiago egin dela "aurrera" (% 68,9). Emakume horiek dira, hain zuzen ere, antolakuntza-kontuetan ekinenak, benetan zer gertatzen den ondoen dakitenak eta, beharbada, atzera begiratu eta orain arteko bidea ikusteko gai direnak.

Aldiz, 7.6. grafikoan, "bereizkeriaz jabetu bai ala ez" adierazlean, bada bai alderik, emakume-antolakundeetan parte hartu izan duten edo ez gorabeheran. Parte hartu izan duten emakumeen ustez, hemen, oraindik, hazteko tarte handiagoa dago: % 23,2k erantzun du ezetz, eta, orokorrean, % 15,5ek esaten du ezetz. Tarte hori, gainera, dezente handiagoa izango litzateke, hain justu, emakume-mugimenduetan parte hartzen duten 18 eta 30 urte bitarteko emakumeen kasuan.

7.5. GRAFIKOA Emakumea bazterturik gaur egun, eta emakumeen mugimenduetan/elkarteetan parte hartzea. Adin-taldeka eta guztira. Ehunekoak.



7.6. GRAFIKOA Emakumearen aurkako bereizkeriaz jabeturik bai edo ez gaur egun, eta emakumeen mugimenduetan/elkarteetan parte hartzea. Adin-taldeka eta guztira. Ehunekoak.



8

KONKLUSIOAK. AHALDUNTZEA “BIZI-ASPIRAZIO” MODURA

Euskal emakumeentzat, autonomia indibidualak erabateko lehentasuna du, bizitzaren zutarrietako bat iruditzen zaie. Erabakiak nork bere kasa hartzea ez den oro, erabakimen hori errazten edo ahalbidetzen ez du oro, kritikagarria zaie. Gainera, emakumeek identifikatuta dute zein diren ahalduntze-prozesuaren erritmoa baldintzatzen duten elementuak.

Hain zuzen ere, azterlanaren azken zati honetan horregatik jorratu dugu, ahalduntzea, "bizi-aspirazio" modura. Kategoria hori erabilia, bi gauza lortuko ditugu: alde batetik, ulertuko dugu emakumeek zer-nolako iritziak eta pertzepzioak transmititzen dituzten beren eguneroko bizitza dela-eta. Beste alde batetik, ikuspuntu analitiko (edo bigarren mailako) bati hel-tzen baldin badiogu, eta halakoa da esku artean darabilguna, "bizi-aspirazio" kategoria erabiliz, "norberaren eremuan amaitzen ez den, eta haratago, espazio kolektibora doan prozesuan" (EMAKUNDE, 2010:81) zein momentutan gauden deskribatu ahal izango dugu, errealtateak bi plano baititu: bata, autonomia-gogoia; eta, bestea, gogo hori benetan zenbateraino aplikatzen edo garatzen den gure eguneroko bizitzan.

Azaldu dezagun konklusio edo ondorioen arrazoibidea: Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeak ahalduntzeko prozesua oso sendoa da, bai, norbanakoaren baitan; autonomia hori, batez ere, ingururik hurbilenekoenetan –edo pribatuetan– gauzatzen da; baina, lan-munduan, ahalduntze-prozesuak ez darama erritmo hori, eta hain zuzen ere gaur egun hor-txe daude oztoporik adierazgarrienak. Ahalduntze-prozesuaren beste momentu bat bizi dugu, guk geuk, eragile modura; eta erabili beharreko estrategiek egoera berriaren arabe-rakoak izan beharko lukete.

AHALDUNTZEAREN INDIBIDUALIZAZIOA

8.1

Ikerketa aplikatu honen emaitzak ikusita, are eta estuago loturik geratu dira ahalduntzea eta indibidualizazioa, –edo indibiduoazioa–. Biak ala biak ere gizartea aldatzeko prozesuak dira –hala ulertzen ditugu–, eta emakumea dute eragile nagusi. Hainbat neurri eta mailatan bada ere, gizarte-harremanak eraldatzea dakarte, eta, aldi berean, nortasun indibidualak osatzeko modua ere bai. Horrek esan nahi du "garai batean, gizarteak esaten zigun zer egin eta zer izan, baina gaur egun negoziaketak geroz eta indar handiagoa du, eta, negoziaketa-aren bitartez, nork bere biografia diseinatzen du, zer egiten duen jakitun delarik eta nahikoa gogoeta eginda". (DÍAZ MARTÍNEZ, 2004:21).

Norbanakoaren garrantziak geroz eta oinarri sendoagoa du, hortaz, ahalduntze-prozesuan. Batez ere, bost adierazletan ikusiko dugu nola: lehen-lehenik, aipa dezagun emakumeek, lehentasunak jartzeko orduan, beste edozeren aurretik, bizitzan eragina duten erabakiak nork bere kasa hartzeko autonomia baloratzen dutela gehien-gehien.

Bigarren adierazleak erakusten digu emakumeek uste dutela autonomiaren aldetik, erabakiak hartzeko orduan, aurreko belaunaldiak baino hobeto daudela. Konparaketa horren emaitzak adierazten duenez, aukera-berdintasunerako bidean badago progresibitate bat, "aurrera" egin dela uste dute. Eta, gainera –hau oso esanguratsua da–, emakume-mugimenduetan parte hartu izan duten andreak dira, garbiago eta indar handiagoz, uste horretakoak, alegia, emakumeen berdintasunean aurrera egin dela irizten diotenak.

Hirugarren adierazleak erakusten du 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek uste dutela gaur egun errazagoa dela emakumeak bizitza sozialaren arlo guztietan presente egotea (horretarako oztopo gutxiago dagoela).

Laugarren adierazleak erakusten du gehienek uste dutela –gaur egun errazagoa zaienez gizarteko esparru guztietara “iristea”– bereizkeria leuntzeko ahaleginean ere aurrera egin dela, nahiz eta oraindik bereizkeria egon badagoen, batez ere lan-arloan eta matxismoak hortxe jarraitzen duelako, kultura modura, aurrerago azalduko dugunez.

Eta iritsi gara bosgarren eta azken adierazlera (adierazle hau, gainera, hurrengo atalerako zubi modura erabiliko dugu). Autonomia indibidual hori, barrutik, ez dago hutsik, batez ere nabarituko da maila pertsonalean edo “pribatuan”, emakumeek uste baitute maila horretan, orain ere, gehien-gehienetan, beren erabakiak beren kasa hartzen dituztela. Autonomia dute lagun/harreman berriak egiteko gaitasunean, norberaren iritziak azaltzeko gaitasunean, bikote-harremanetan, dirua kudeatzeko orduan, beste pertsona batzuk zaintzeko orduan, edo zer egin nahi duten edo denbora nola kudeatu nahi duten erabakitzeko orduan, nahiz eta, “zeregin” horretan, kanpoan eta etxean lan egiten duten emakumeek muga gehiago identifikatzen dituzten.

Bost adierazle horiek ikusita –eta bostak ere Euskadin bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen beren iritzietatik sortuak dira–, gure ustez, planteamendu horretan, hau da, “norberaren” botere horretan, nor bere premiez edo interesez jabetze horretan, “oinarrian”, ahalduntze-prozesua dago, gutxienez prozesu horren lehen mailan edo dimentsio indibidualean (MURGUIALDAY– VÁZQUEZ; 2005:43-44).

AHALDUNTZEAREN PRIBATIZAZIOA

8.2

Ikusi dugunez, Euskadin bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeen artean, autonomia indibiduala garrantzi handiko balioa da; hori horrelaxe finkatuta dago. Esan daiteke, hala ere, autonomia hori batez ere etxean eta etxekeekin gauzatuko eta bideratuko dela, maila pertsonalean edo “pribatuan”, lan-arloan baino gehiago.

Horregatik jarri diogu izenburu hori atal honi, ahalduntze-prozesua pribatizatu egin baita nolabait, prozesuaren indibidualizazioarekin hertsiki loturik. MEIL-ek adierazi duenez (2011:14), “Emakumeen ahalduntzeak negoziaketa ekarri du, negoziaketa inplizitoagoa esplizitoa baino. Hainbat gauza negoziatzen da, elkarrekin nola bizi, elkarrekin bizi horretan norberak bere autonomia nondik noraino edukiko duen, eta bikote bakoitzaren erantzukizunak; eta, azkenean, beste familia-mota bat sortu da, negoziatzailea deitu daitekeena”.

18 eta 65 urte bitarteko emakumeek esaten dutenez –eta berdin dio zein belaunalditakoak diren, zein ikasketa-maila duten edo zertan aritzen diren–, etxean, erabakiak hartzeko orduan, badago, bai, genero arteko botere-oreka bat; baina, erabakiak lan-arloan hartu behar direnean, ordea, oreka hori galdu egiten da, genero maskulinoaren alde.

Itxura batean, emakumeen ahalduntzeak “plaza pribatuan” egin du bere bidea, lan-arloan edo “plaza publikoan” baino sendoago. Historian eta egituretan begiratzen baldin badugu, izango da horretarako arrazoirik, baina, etxetik/familiatik irteten ez baldin badugu, maila edo dimentsio horretan oinarritzen baldin bagara, ikerlan honek ezingo ditu arrazoi horiek azalerratu, ezingo du hain urrun joan. Momentu honetan, analisia hobeto egitearren, pribatua/publikoa bereizketak erabiltzea erabaki dugu, baina ez zaigu gustatzen, eguneroko praktikan banaketa hori faltsua baita (MASA, 2000), ezagun baitu karga patriarkala (MURILLO,

1996), eta, horregatik, intererlazonaturik ulertu behar da, tandem balitz moduan (FLAQUER; 1984).

Beste aztergai bat izango litzateke ikustea, historian eta egituretan, zein arrazoik eragiten duen etxearekin eta etxekoekin zerikusia duten jarduerak genero-rola atxikita edukitze hori gutxiago edo gehiago barneraturik egotea, "emakumearen espezializazio emozionala" delakoa, alegia (DEL VALLE, 2002: 165). Espezializazio hori gabe, ezinezkoa litzateke gaur egungo herritar-eredua taxutzea, ezinezkoa gure eguneroko bizitza egituratzea (IZQUIERDO; 2006:107), eta, besteak beste, horregatik –oraindik ere gure artean baitago–, "gizartearen azpigarapena" (NAVARRO 2006). Hala ere, hau ez da gai horretan sakontzeko lekua.

Pentsa daiteke –eta zilegi da horrela pentsatzea– emakumeari, beste egituraketa zabalago baten barruan, botere-espazio hori (etxea/etxekoak) "inposatu" egin zaiola, baina, hala ere, publikotik kanpoko agertokiek (horrela sailkatuek alegia) gizartea aldatzeko gaitasuna ere badute, eta ez legoke gaizki gaitasun hori ez ahaztea. Guk darabilgun argumentazio-bidean, ahalduntze-prozesua autonomia indibidualaren mailan horrela sendotu izanak eta ingurune pribatu horretan praktikan jarritako estrategiek (TOBÍO; 2006) berebiziko garrantzia dute gauzak azaltzeko. Horra hor, esate baterako, belaunaldien artean generoa dela-eta zenbat gauza transmititu diren, 65 urte baino gehiagoko emakumeek –amak, amonak– emakume gazteagoei zenbat gauza erakutsi dizkieten, bizitzari esku biek nola heldu jakin dezaten, inoren atzetik ibili gabe (EMAKUNDE, 2012: 105 y ss.); ugalketa-iraultza bete-betekoa, besteak beste poliki-poliki patriarkatua eraistea eragin duena (MC INESS Y PÉREZ DÍAZ; 2008:102); edo are eta erantzukidetasunerako bide motela baina, itxura batean, zalantzarik gabea (EMAKUNDE, 2007: 122 y ss); nahiz eta horrek guztiak ez duen esan nahi amaitu direla, esparru horretan, bereizkeriak edo emakumeentzako espezializazioak (EUSTAT, 2012).

LAN-ARLOAN AHALDUNTZEA: EGINKIZUNA EGITEKE

8.3

Joan gaitzen, orain, beste plazara, "publikora", eta ikus dezagun emakumeek zer esaten duten, plaza horretan erabakiak hartzeko duten gaitasunaz. Bada, Euskadin bizi diren 18 eta 64 urte bitarteko emakumeek uste dute badirela, egunero-egunero, baldintza edo muga batzuk, autonomia berdintasunean garatzea eragozten dietenak. Aipa ditzagun adierazle batzuk, esanguratsuenak soilik: emakume horien % 18,5ek uste du gaur egun ez dagoela emakumeak bizitzaren arlo guztietan lehen baino ageriago egoteko aukera gehiago; % 30,5ek esaten du gaur egun emakumeak gizonak baino autonomia txikiagoa duela erabakiak hartzeko orduan; ia % 80k esaten du gaur egun, gure gizartean, emakumea bazterturik dagoela, batez ere lan-arloan, kultura matxistak ere hortxe diraelako.

Eta, hain zuzen ere, hortxe, lan-arloan, hortxe dago emakumeen ahalduntze-prozesuaren paradoxa nagusietako bat. Gauza erabat onartua da "lanak indarra ematen duela", emakumeari nortasun indartsu bat ematen diola, eta erabat ugalketa-zereginetara emanak dauden emakumeek ere (etxeko andreak) uste dute, lana edukita, emakumeak erabakiak hartzeko gaitasun handiagoa duela, lanik eduki gabe baino.

Baina denek uste dute orobat, gauzak gaur egun dauden bezala, eginkizun gaitza dela. Hau da, denek uste dute, lan-arloaren "gizontasuna" errotik edo gogotik eraldatzen ez bada,

